

**Herritarren ahotsak**

**Transmisioa ikasgelan**

**Balio zibikoak eta etikoak**

# Gida didaktikoa

*LH 6. maila*

**Badihardugu Elkarte**

Otaola hiribidea, 1  
20600 Eibar (Gipuzkoa)  
943 12 17 75

## *Aurkibidea*

SARRERA.....	3
HELBURU DIDAKTIKOAK .....	6
FUNTSEZKO KONPETENTZIAK.....	10
KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK.....	16
EDUKIAK.....	20
FUNTSEZKO JAKINTZAK.....	20
GAI NAGUSIAK .....	24
EBALUAZIO-IRIZPIDEAK.....	34
NOIZ ETA NOLA ERABILI.....	38
PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA .....	41
PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK .....	46
1. <i>Gaia:</i> <b>Inguruko aniztasuna</b> Bizikidetza .....	46
2. <i>Gaia:</i> <b>GKEak Euskal Herrian</b> Bizikidetza .....	60
3. <i>Gaia:</i> <b>Umorearen mugak</b> Bizikidetza.....	69
4. <i>Gaia:</i> <b>Gure planeta krisian</b> Garapen jasangarria.....	77
5. <i>Gaia:</i> <b>Bost emakume bertsolari: XIX-XX</b> Genero-berdintasuna .....	86
6. <i>Gaia:</i> <b>Gona oholtza gainera</b> Genero-berdintasuna.....	94
7. <i>Gaia:</i> <b>Emakumea eta umorea</b> Genero-berdintasuna.....	104
ESPAZIOEN ANTOLAKETA .....	111
DENBORALIZAZIOA .....	113
MATERIALAREN EGILEAK .....	115
BIBLIOGRAFIA .....	117

## SARRERA

Gure ikasmaterialak Euskal Herriko Ahotsak [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) proiektuan bildutako ahozko ondarea dauka oinarri gisa. Euskarazko testigantzak, adinekoenak zein gazteenak. Gure asmoa jakintzen eta kontatzeko moduen transmisioa egitea da, ahozko jardunaren bitartez. Eta, bidez batez, belaunaldien arteko hurbilketa lortzea, lehenaldia eta oraina lotuz.



“Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua 2015ean sortu zen, EIMA 2.0. egitasmoari esker (orain EIMA Digitala). DBHko **Herritartasunerako Hezkuntza** irakasgairako egin genituen lehen [proposamen pedagogikoak](#):



Ondoren, **Euskara eta Literatura** ikasgaiari heldu genion, eta 2016tik 2020ra bitartean DBHko eta Batxilergoko maila guztietarako [materiala](#) prestatu genuen:



2021ean, berriz, **Balio Etikoak** irakasgaiari heldu genion, hasierako lan-lerrora bueltatuta. Azken urteotan **DBH1, DBH2 eta DBH3**rako materiala atondu dugu:



Oraingoan **Lehen Hezkuntzako 6. maila**rako prestatu dugu ikasmateriala, **Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa** ikasgairako, hain zuzen ere.

Orain arteko lanketa guztiak <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> webgunean daude erabilgarri, euren gida didaktikoekin (proiektuetan, EIMA 2.0. aukeratuta).

## Aurtengo proposamena

**Balio Zibiko eta Etikoen Heziketa** ikasgaiari heldu diogu aurten, LOMLOE legeak ekarritako aldaketak aintzat hartuta. LHko 6. mailarako prestatu dugu materiala eta orain arte prestatutako ikasmaterialarekin bateragarria izango da: osatu egingo du.

**7 proposamen pedagogiko** prestatu ditugu. Aniztasuna, elkartasuna eta genero-berdintasuna dira gai nagusiak.

## Zerk bereizten du gure materiala?

**Ahokotasuna** dauka abiapuntu gisa, edukiak jorratzeko garaian. Curriculumean ahokotasunari garrantzi handia ematen bazaio ere, askotan idatzizkoa gailentzen da ikastetxeetan. Ahokotasuna lantzeko ereduak falta dira, eta guk baditugu. Ahokotasunak naturaltasuna esan nahi du, adierazkortasuna, eta agerikoa da gaztetxo askok premia hori dutela, erdarara jotzeko duten joera ikusita.

Herriaren jakinduria, **jakintza kolektiboa**. Hori da beste ezaugarrietako bat. Eskolako liburuetan presentzia gutxi izaten duen herritarren ahotsa da gure ikasmaterialaren ardatza; herri baten izatearen lekukotasuna, azken batean. Adituena zein herritar xeheena. Gazteena zein adinekoena. Hezur-haragizko pertsonak kontatutakoak dira proposamenen ardatza, eta horrek gertutasuna ematen du. Gainera, ikasmaterialak Curriculumaren **euskal dimentsioa** lantzeko balioko du, euskal mundu ikuskeraren erakusgarri den heinean. Euskara eta euskal kultura transmititzean euskal identitatea ere lantzen da.

*"Euskal Hezkuntza Sistemak konpromiso berezia hartzen du euskararekin –hizkuntza propioa baita– eta kulturarekin eta haren transmisioarekin, euskara eta euskal kultura identitate-, adierazpen- eta elkarbizitza-tresnatzat hartzen dituen heinean". (77/2023 Dekretua)*

Badira gai batzuk lehentasunezkoak eta unibertsalak direnak. Betikoak eta betiko direnak: balioak, errespetua, elkarbizitza, berdintasuna... horiek etxean erakusten dira neurri

handi batean; bai lehen eta bai orain. Hori bai, ikastetxeetan ere **balio zibikoek eta etikoek** gero eta indar handiagoa dute. Izan ere, ezinbestekoa da eskolak ikaslea eguneroko bizitzarako prestatzen laguntzea. Duela gutxi arte, transmisioa etxeko sukaldean egiten zen, baina azken belaunaldietan ez, bizimodua goitik behera aldatu baita: teknologia berrien aroan murgilduta bizi gara. Guk ere **transmisioa** egiteko modu berriak aurkitu behar izan ditugu, **teknologia berriak** erabilita eta modu erakargarrian aurkeztuta.

Hala, batetik, gure aurrekoen bizipenak, adineko jendearenak, ezagutzera ematen ditugu. Izan ere, gizartearen barne-egitura, balioak, bizimodua, arazoak, pentsaera... gizartearen bilakaeraren ondorio dira; nondik gatozen jakin behar dugu, nora goazen jakiteko. Bestetik, beharrezkoa da gaur egungo gazteen ahotsa ere aintzat hartzea, orain haiek direlako lemazain bihurtu behar dutenak, eta ikasleak gazteekin gehiago identifikatzen direlako. **Belaunaldien arteko zubi-lana** egiten dugu. Soka beraren katebegiak gara denok.

**Ikasmaterial digitala** da gurea, Curriculuma aintzat hartuta sortua; ikasgelan erabiltzeko eta ikasleari begira egina, ez beste nonbaitetik hartua eta egokitua. Irakasleen autonomia errespetatzen du, irakasleek nahierara erabil eta molda ditzaketen proposamenak egiten baititugu. Lizentzia librearekin banatzen da eta Euskal Herriko ikastetxe guztietan erabiltzeko modukoa da, interes orokorrekoa. Halaber, erabiltzeko erraza da, intuitiboa, bilaketa mailaren, ikasgaiaren eta gaiaren arabera egin daitekeelako: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/>.

Diseinu erakargarria du. Eta berdintasunari buruzko lanketak egiteko baliagarria gertatzeaz gainera, berdintasuna aintzat hartzen du bai gaiak aukeratzean, bai proposamen pedagogikoetan.



Irudian, DBHrako prestatu ditugun fitxetako batzuk

## HELBURU DIDAKTIKOAK

---

Gure ikasmateriala LHko 6. mailako irakasle eta ikasleei dago zuzendua, eta **Balio Zibiko eta Etikoen Hezkuntza** irakasgaiarekin dago lotuta. DBHrako ere ikasmateriala prestatuta dugu eta, beraz, hurrengo urteetan LHn landutakoa osatzeko aukera izango dute ikasleek.

EIMA DIGITALA deialdiaren barruan sortu dugu materiala, Hezkuntza Baliabide Irekiak (HBI) atalerako, eta deialdi horretako baldintzak betetzen ditu. Besteak beste:

- Euskara hutsean sortutako ikasmateriala digitala da (2.1. eta 2.2 artikulua).
- Creative Commons lizentziarekin argitaratzen da (2.4. artikulua).

Proiektu honen helburuetako bat **ahozkotasuna** lantzea da. Berebiziko altxorra daukagu jasota [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus) proiektuan. Testigantza horiek euskarazkoak eta ahozkoak dira guztiak. Zer esaten duten eta nola: edukiz nahiz formaz dira baliagarriak. Gure egiten dugu eskola curriculumetan (175/2007, 23/2009, 236/2015 eta 77/2023 Dekretuak) egoera ezberdinetan komunikatzen ikasteari ematen zaion garrantzia, eta baita ere ahozko hizkuntzari buruz esplizituki esaten dena:

*“Ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztuak izan ditu erabat gure eskola-sistemak. Eta, hala eta guztiz ere, behar-beharrezkoa da hizkuntza-trebetasunon garrantzia behar bestetan azpimarratzea, horiek emango baitiete aukera ikasleei beren komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko, ikasgelan ikaskideen arteko komunikazioa errazteko eta esaten dituztenen esanahia behar bezala negoziatzeko; gainera, ezinbestekoak dira trebetasun kognitibo-linguistikoak garatzeko eta arlo guztietako ezagutzak eraikitzen laguntzen dute. Horrekin batera, baina, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoa zein den kontuan hartuta, beharrezkoa da eskolak euskarazko ahozko komunikazioa sustatzea, gure hizkuntzaren erabilera soziala eta normalizazio-prozesua sustatuko baditugu”* (HEZIBERRI 2020: 236/2015 Dekretua)

*“Ahozko komunikazioa izan da, historikoki, gutxien landu dena eskola-sisteman. Ahozko komunikazioaren garrantzia nabarmendu beharko da, komunikazio-konpetentzia osoa garatzeko zein ikasgelako elkarreragina errazteko. Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko egoera soziolinguistikoak behartuta, eskolak euskarazko*

*ahozko komunikazioa bultzatu beharko du, euskararen erabilera soziala errazte aldera eta normalizazio-prozesua bultzatze aldera". (77/2023 Dekretua)*

Ahozkotasuna lantzeko aukeraz gainera, gure lehengo eta oraingo gizartea barrutik ezagutzeko hainbat giltza ematen dituzte adinekoen eta gazteen testigantzek. Batetik, hizkera dago: euskararen aberastasuna. Bestetik, kontatzen dutena: historia, iritziak eta jakintzak. Haien testigantzek hausnarketarako bidea zabaltzeko balio dute, ikasleak euren kabuz ondorio batzuetara heldu daitezten, talde-lanaren laguntzaz. Bide batez, besteen hitzei balioa emateko, denen iritziak entzuteko eta errespetuzko harremanak lantzeko ere balio du.

Ikasleek errealitatea kritikoki epaitzen laguntzen duten balio-printzipioak landuko dituzte. Eta hori era autonomoan, arrazoizkoan eta elkarrizketaren bidez egin dezaten balio dute gure bideoek eta proposatuko ditugun jarduerak. Gure ikasmaterialak pentsarazteko balio du.

**Legezko Xedapenen testuinguruan,** Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculumean (77/2023ko Dekretua) jasotako helburuekin bat dator gure ikasmateriala, bai funtsezko konpetentziekin eta baita konpetentzia espezifikoeekin ere.

Oinarrizko Hezkuntzaren helburua da, haren bi etapen bidez, ahoz eta idatziz adierazteko eta ulertzeko trebetasunak eta trebetasun logikoak eta matematikoak garatzea eta finkatzea, eta ikasleei kulturaren oinarrizko elementuak ematea, haren eremu humanistikoan, zientifiko-teknologikoan, artistikoan eta motorrean. Ikasle guztiek bizi-ohitura osasungarriak, elkarbizitzarako ohiturak eta ikasteko eta lan egiteko ohiturak hartu eta sendotu beharko dituzte, nortasuna erabat garatzen lagunduko dien prestakuntza integrala berma dadin eta, hartara, herritar gisa dituzten eskubide eta betebeharrak erabat balia ditzaten eta ondorengo ikasketetan hasteko eta etorkizunean laneratzeko presta daitezten.

Oinarrizko Hezkuntzak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar die ikasleei (77/2023 Dekretua):

- a) Beren betebeharrak ulertzea eta arduraz hartzea, beren eskubideak gainerakoekiko errespetuan ezagutu eta erabiltzea, pertsonen eta taldeen arteko tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatzea, elkarrizketan aritzea eta, hala, giza eskubideak finkatzea gizarte plural baten balio komun gisa, eta herritartasun demokratikoa baliatzeko prestatzea.

- b) Nork bere burua erregulatzeko, ikasteko eta bakarka nahiz taldean lan egiteko ohiturak garatzea eta finkatzea, ikasketak eraginkortasunez egiteko beharrezkoa den baldintza gisa eta norbera garatzeko bitarteko gisa.
- c) Genero-berdintasuna baloratzea eta sexu-, genero-, etnia-, arraza-aniztasuna edo gaitasunen arloko aniztasuna errespetatzea. Gizonen eta emakumeen arteko edonolako **diskriminazioa dakarten estereotipoak errefusatzea**. Sexu- eta ugalketa-eskubideak ezagutzea eta pertsona oro errespetatuz eta norbera zainduz baliatzea.
- d) Nortasunaren esparru guztietan eta gainerakoekiko harremanetan gaitasun afektiboak indartzea, gatazkak modu baketsuan konpontzea eta indarkeria –berezi, indarkeria matxista eta indarkeria LGBTifobikoa–, edonolako aurreiritziak eta **portaera sexistak baztertzea**.
- e) Informazio-iturriak erabiltzeko oinarrizko trebetasunak garatzea, ezagutza berriak **zentzu kritikoz** lortze aldera. Oinarrizko kompetentzia teknologikoak garatzea eta haien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.
- f) Ezagutza zientifikoa zenbait diziplinatan egituratzen den jakintza integratu gisa hartzea, eta ezagutzaren eta esperientziaren arloetako arazoak identifikatu eta konpontzeko metodoak ezagutzea eta aplikatzea.
- g) Beren buruaren gaineko konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta **espiritu ekintzailea** garatzea, baita ikasten, planifikatzen, erabakiak hartzen eta erantzukizunak beren gain hartzen ikasteko gaitasuna ere.
- h) **Euskaraz** eta gaztelaniaz zuzentasunez ulertzea eta adieraztea, **ahoz** eta idatziz, eta testu eta mezu konplexuak sortzeko gai izatea.
- i) Atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan egoki ulertzea eta adieraztea.
- j) Norberaren **kulturaren eta historiaren** eta euskal kulturaren eta historiaren oinarrizko alderdiak ezagutu, baloratu eta errespetatzea, baita historia orokorra/unibertsala eta ondare artistikoa eta kulturala ere.
- k) Norberaren eta gainerakoen gorputzaren funtzionamendua ezagutzea eta onartzea, **desberdintasunak errespetatzea**, gorputzaren zaintza- eta osasun-ohiturak finkatzea eta ikasleen ohituretan heziketa fisikoa eta kirol-praktika txertatzea, norberaren eta



gizartearen garapena errazte aldera. Sexualitatearen giza dimentsioa ezagutzea eta baloratzea, eta haren aniztasuna.

l) Modu kritikoan baloratzea osasunarekin, kontsumoarekin, zaintzarekin, enpatiarekin eta izaki bizidunenganako (animaliak barne) eta **ingurumenarekiko errespetuarekin** lotzen diren gizarte-ohiturak, eta horiek kontserbatzen eta hobetzen laguntzea.

m) Arte-sorkuntza estimatzea eta arte-adierazpenen hizkuntza ulertzea, zenbait adierazpide eta irudikabide erabiliz.

n) Gizateriak dituen eta **garapen jasangarrirako** helburuetan zehazten diren arazo nagusiez jabetzea.

### **Irteera-profilaren garrantzia**

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profila identifikatu eta definitzen du, XXI. mendeko erronkekin lotuta eta garapen jasangarrirako helburuak aintzat hartuta, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko kompetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza prozesuaren zati gisa. Ikasleak eskuratu beharreko ikaskuntzen barruan sartzen dira eta ikasmaterial honek kontuan dauzka:

– Jarrera arduratsua garatzea, **ingurumenaren degradazioaren kontzientzia** hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoen ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.

– **Euskara erabilera** eta **euskal kulturarekiko jakin-mina** garatzea eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea.

– **Kontsumo arduratsuarekin** lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.

– **Bizi-ohitura osasungarriak** garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.

- **Sentsibilitatea lantzea** ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, **modu baketsuan konpondu** beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak **modu kritikoan aztertzea** eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, **erantzun sortzaileak** artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan **lankidetzan aritzea** eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratzuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, **enpatia eta eskuzabaltasuna** garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.
- Bizitzan zehar **ikasten jarraitzeko aukera** emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

## *FUNTSEZKO KONPETENTZIAK*

**Funtsezko konpetentziak** honako hauek dira Oinarrizko Hezkuntzan (77/2023ko Dekretua):

- **Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (HKK)**
- **Konpetentzia eleaniztuna (KE)**
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia (STEM)**
- **Konpetentzia digitala (KD)**

- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII)**
- **Herritartasunerako konpetentzia (HK)**
- **Ekintzaitza-konpetentzia (EK)**
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia (KAKK)**

Ikasmaterial honek funtsezko konpetentzia guztiak izango ditu kontuan, baina bereziki bost hauek:

### **1- HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA (HKK)**

*Ahoz, idatziz edo modu koherente eta egokian jardun behar du hainbat esparru eta testuingurutan eta hainbat komunikazio-helbururekin. Ezagutza, trebetasun eta jarrera guztiak modu kontzientean mobilizatzea eskatzen du, ahozko mezuak, zeinuak, idatziak, ikus-entzunezkoak edo multimodalak ulertzeko, interpretatzeko eta kritikoki baloratzeko aukera ematen dutenak, manipulazioaren eta desinformazioaren arriskuak saihestuz, bai eta beste pertsona batzuekin modu kooperatiboan, sortzailean, etikoan eta errespetuzkoan eraginkortasunez komunikatzea ere.*

Materiala Lehen Hezkuntzako azken mailarako da, 6. mailarako. LH osatzean, ikasleak:

- a. Gertakariak, kontzeptuak, pentsamenduak, iritziak edo sentimenduak euskaraz eta gaztelaniaz ahoz, idatziz eta era multimodalean edo siglen bidez adieraziko ditu, argi eta bere ingurune pertsonal, sozial eta hezitzaileko eguneroko testuinguruetara egokituta, eta elkarrekintza komunikatiboetan parte hartuko du, lankidetzaz eta errespetuz, bai informazioa trukatzeko eta ezagutza sortzeko, bai lotura pertsonalak eraikitzeko.
- b. Pertsona-, gizarte- eta hezkuntza-arloetako ahozko, idatzizko eta multimodalezko edo zeinuzko testu errazak ulertu, interpretatu eta baloratuko ditu, euskaraz zein gaztelaniaz, unean uneko laguntzarekin, eguneroko testuinguruetan aktiboki parte hartzeko eta ezagutza eraikitzeko.
- c. Bi iturritatik edo gehiagotatik datorren euskarazko eta gaztelaniazko informazio erraza aurkitu, aukeratu eta kontrastatuko du, eta fidagarritasuna eta erabilgarritasuna ebaluatuko ditu irakurketa-helburuen arabera, eta ezagutza bihurtuko du komunikatzeko, ikuspegi sortzaile eta pertsonala hartuz, jabetza intelektuala errespetatzearekin batera.

d. Bere garapenera egokitutako euskarazko eta gaztelaniazko askotariko lanak irakurriko ditu, bere gustu eta interesetara hobekien egokitzen direnak hautatuz; ondare literarioa norbanakoaren eta taldearen gozamenerako eta ikaskuntzarako iturritzat hartuko du; eta bere esperientzia pertsonala eta irakurlea mobilizatuko ditu, obren interpretazioa eraiki eta partekatzeko eta eredu errazetatik abiatuta asmo literarioko testuak sortzeko.

e. Bere komunikazio-praktikak elkarbizitza demokratikoaren, gatazken kudeaketa elkarriketatuen eta pertsona guztien eskubide-berdintasunaren zerbitzura jarriko ditu, hizkuntzaren erabilera diskriminatzaileak hautemanez, bai eta hizkuntzaren bidez gertatzen diren botere-gehiegikeriak ere, hizkuntzaren erabilera eraginkorra ez ezik, etikoa ere bultzatzeko eta euskararen ohiko erabilerarekiko jarrera asertiboa izateko.

## **2- KOMPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)**

*Kompetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nork bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nork bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, nork bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzunkidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bizi bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gatazkei heltzea.*

Lehen Hezkuntza osatzean, ikasleak:

a. Bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutuko ditu, eta tentsio- edo gatazka-egoeretan horiek kudeatzeko estrategiak erabiliko ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik, aldaketetara egokituz eta harmonizatuz, bere helburuak lortzeko.

b. Osasunerako arrisku garrantzitsuenak ezagutuko ditu eta bere ongizate fisiko eta mentalerako ohitura osasungarriak hartzen hasiko da.

- c. Besteen emozioak eta esperientziak ezagutu eta errespetatuko ditu, talde-lanean parte hartuko du, esleitutako banakako erantzukizunak bere gain hartuko ditu eta partekatutako helburuak lortzera bideratutako lankidetzaz-estrategia errazak erabiliko ditu.
- d. Bere ikaskuntza hobetzeko ahalegin eta ardura pertsonalaren balioa ezagutuko du, eta jarrera kritikoak hartuko ditu hausnarketa-prozesu gidatuak gertatzen direnean.
- e. Epe laburreko helburuak planifikatuko ditu, ikaskuntza autorregulatuko estrategiak erabiliko ditu eta autoebaluazioko eta koebaluazioko prozesuetan parte hartuko du, bere mugak ezagutzuz eta ezagutza eraikitzekeo prozesuan laguntza bilatzen jakinez.

### **3- HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA (HK)**

*Herritartasunerako konpetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoaren ulermenean oinarrituta, bai eta munduko gertaeren ezagutzan eta iraunkortasunarekiko eta munduko herritartasuna lortzearekiko konpromiso aktiboan ere. Horren barruan sartzen dira alfabetatze zibikoa, giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratikoaren berezko balioen onarpen kontzientea, gure garaiko arazo etiko handiei buruzko hausnarketa kritikoa eta 2030 Agendan planteatutako Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren bizimodu iraunkorraren garapena.*

Lehen Hezkuntza osatzean, ikasleak:

- a. Bere nortasunari eta kulturari buruzko gertaera historiko eta sozial garrantzitsuenak ulertuko ditu, bizikidetzaz-arauei buruzko gogoeta egingo du, eta modu eraikitzailean, elkarrizketan eta inklusiboan aplikatuko ditu edozein testuingurutan.
- b. Erkidegoko jardueretan parte hartuko du, erabakiak hartuko ditu eta gatazkak konpontzeko ditu, Europar Batasunaren eta Euskadiko Autonomia Estatutua esparruko prozedura demokratikoak, giza eta haur eskubideak, aniztasunaren balioa eta genero-berdintasuna, gizarte kohesioa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak errespetatuz.

c. Gaurkotasuneko balio eta arazo etikoei buruz hausnartu eta hitz egiten du, eta kultura eta ideologia desberdinak errespetatzeko, ingurunea zaintzeko, aurreiritziak eta estereotipoak baztertzeko eta diskriminazio eta indarkeria mota ororen aurka egiteko beharra ulertzen du.

d. Giza ekintzen eta ingurunearen arteko harreman sistemikoak ulertzen ditu, eta bizi-ohitura iraunkorrak hartzen hasten da, biodibertsitatea kontserbatzen laguntzeko, tokiko ikuspegitik zein ikuspegi globaletik.

#### **4- EKINTZAILTZA-KONPETENTZIA (EK)**

*Ekintzailtzarako konpetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz. Hainbat estrategia eskaintzen ditu: beharrak eta aukerak hautemateko begirada egokitzea; sormen eta berrikuntza prozesuen barruan, pentsamendu estrategikoa, sormena, irudimena eta hausnarketa etiko, kritiko eta konstruktiboa erabiliz ideiak sortu eta birplanteatzea; ingurunea aztertu eta ebaluatzen pentsamendua entrenatzea; eta ikasteko, arriskatzeko eta ziurgabetasunari aurre egiteko jarrera piztea. Era berean, informazioan eta ezagutzan oinarritutako erabakiak hartzea eta beste pertsona batzuekin modu arinean lankidetzan aritzea eskatzen du, motibazioz, enpatiaz eta komunikazio- eta negoziazio-trebetasunez, planteatutako ideiak ekintzara eramateko balio sozial, kultural eta ekonomiko-finantzarioko proiektu iraunkorrak planifikatuz eta kudeatuz.*

Lehen Hezkuntza osatzean, ikasleak:

1. Aurre egin beharreko beharrak eta erronkak ezagutuko ditu, eta ideia originalak landuko ditu, sormen-trebetasunak erabiliz eta ideiek ingurunean sor ditzaketen ondorioez eta ondorioez jabetuz, hautemandako beharrei erantzungo dieten konponbide baliotsuak proposatzeko.
2. Norberaren indarguneak eta ahuleziak identifikatuko ditu, nork bere burua ezagutzeko estrategiak erabiliz; oinarritzko elementu ekonomiko eta finantzarioak ezagutzen hasiko da, eta horiek eguneroko bizitzako egoera eta arazoei aplikatuko dizkie, jatorrizko ideia baliotsuak ekintzara eraman ditzaketen baliabideak hautemateko.

3. Ideia eta konponbide originalak sortuko ditu, zereginak planifikatuko ditu, beste batzuekin eta taldean lan egingo du, egindako prozesua eta lortutako emaitza baloratuta, ekimen ekintzaile bat aurrera eramateko, esperientzia ikasteko aukeratzat hartuta.

## **5- KONTZIENTZIA ETA ADIERAZPIDE KULTURALERAKO KONPETENTZIA (KAKK)**

*Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako konpetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea, bai eta hainbat arteren eta beste kultura-adierazpenen bidez ere. Norberaren ideiak ulertzen, garatzen eta adierazten ahalegintzea eskatzen du, bai eta gizarteko kide izatearen zentzua izatea edo gizarteko funtzio bat hainbat modutan eta testuingurutan betetzea ere, eta nortasuna aberastea kulturen arteko elkarrizketaren bidez.*

Lehen Hezkuntza osatzean, ikasleak:

- a. Edozein garaitako kultura- eta arte-ondarearen funtsezko alderdiak ezagutu eta errespetatuko ditu, kulturarteko ingurune batean kultura-desberdintasunak eta horiek errespetatzeko beharra ulertuta.
- b. Ezagutzen duen eta interesatzen zaion ondarearen adierazpen artistiko eta kultural nabarmenenen berezitasunak eta intenzionalitateak ezagutuko ditu, lengoaien eta elementu teknikoen bidez, hainbat bitarteko eta euskarritan, etengabe aldatzen ari den testuinguru batean.
- c. Bere nortasuna aberastu eta eraikiko du, ingurunearekin eta gizartearekin elkarreraginez, adierazpen kultural eta artistiko sortzailearen bidez, bere gorputza integratuz eta konpetentzia afektiboak garatuz, besteekiko jarrera ireki eta inklusiboarekin.
- d. Sormenez erabiliko ditu hainbat arte-adierazpen eta teknika plastikoak, ikus-entzunezkoak, soinuzkoak eta gorputz adierazpenezkoak erabiliz, proposamen artistikoak eta kulturalak elkarlanean sortzeko.

**Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa** irakasgaiak funtsezko konpetentzia guztiak garatzen laguntzen du eta horiek konpetentzia espezifiko zehatz baten edo batzuen bidez lantzen dira. Gure kasuan, herritartasunerako konpetentzian eta konpetentzia pertsonala, soziala

eta ikasten ikastekoan eskatzen den irteera-profila dela-eta, funtsezko bi kompetentzia horiek garrantzi berezia hartzen dute eta kompetentzia-esparru guztietan lotzen dira. Arlo honek etapako gainerako arloekin duen loturari dagokionez, Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa lotura garrantzitsua da jorratzen diren jakintzen artean. Pentsamendu konplexuaren lanak ikaskuntza-prozesu esanguratsuak eta diziplinar-teko ikuskera errazten dituen ikuspegia ematen du. Gainera, horietako bakoitzean balio erantsia ematen du: arlo bakoitzean lantzen diren oinarritzko jakintzei buruzko gogoeta kritikoa.

Balio Zibiko eta Etikoetako Heziketa arloak batez ere funtsezko bost kompetentzia-esparru garatzen ditu, aurretik zehaztu ditugunak. Laburbilduz horrela azaldu daiteke ikasgaiari jorratzen diren ildoak:

- NI. Autoezagutza eta autonomia pertsonalaren garapenarena (KPSII eta EK).
- GU. Bizikidetzako gizarte-esparrua ulertzea eta esparru hori arautzen duten printzipio, balio eta arauetako konpromisoa (HK, KAKK, KE).
- INGURUNEA. Ingurunearen iraunkortasunarekin bateragarriak diren jarrerak hartzea, ingurunearekiko mendekotasuna eta ekomendekotasuna ulertuz (STEAM, HK).
- PENTSAMENDUA. Zalantzan eta elkarrizketa kooperatiboan oinarritutako lanketa, eta pentsamendu konplexua oinarritzen duten trebetasunak garatzea (HKK, HK eta KPSII).
- SENTSIBILITATEA. Emozioak hezteak, gure garaiak planteatzen dizkigun balio eta arazo etiko, zibiko eta ekosozialei dagokienez sentzibilitate eta jarrera afektibo egokia garatzeko (KPSII, HK, KD).

Dena den, funtsezko kompetentzietako batzuk, multzo jakin batekin lotuta aurkeztu arren, horietan guztietan lantzen dira (HKK, KD, HK...). Era berean, kompetentzia-esparru horietako bakoitza bi maila integratutan hedatzen da: bata teorikoagoa, kontzeptu eta gai garrantzitsuak modu esanguratsuan ulertzera bideratua, eta bestea praktikoagoa edo instrumentalagoa, gogoetatik eta elkarrizketatik abiatuta, balio etiko eta zibiko jakin batzuekin bat datozen jokabideak eta jarrerak sustatzera bideratua.

### *KOMPETENTZIA ESPEZIFIKOAK*

Balio Zibiko eta Etikoen Hezikuntza arloko kompetentzia espezifikoak honako hauek dira:



**1. Norbere buruari eta inguruneari buruzko gaiak eztabaidatzea eta argudiatzea, informazio fidagarria bilatuz eta aztertuz, eta horri buruzko jarrera erreflexiboa sortuz, norberaren identitatea eraikitzeke garaian autoezagutza eta autonomia pertsonala sustatzeko.**

Ikasleak autonomiaz eta zuhurtziaz erabakitzeke gaitzeak berekin dakar haiei hastapenak irakastea beren existentziari eta eguneroko inguruneari eragiten dieten eta jokabide, jarrera, sentimendu, balio eta ideiekin lotuta dauden arazoengatik inguruko eztabaida arrazionalaren jardunean. Ezinbestekoa da jorratu beharreko arazoei buruzko informazioa zorrotz eta kritikoki erabiltzea ez ezik, elkarrizketa kooperatiboa eta besteekiko errespetuzkoa praktikan jartzea ere. (Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KD1, KD4, KPSII4, HK1, HK2, HK3, CP1, KPSII 1, KPSII2, KAKK3).

**2. Arau eta balio zibiko eta etikoei buruz gogoeta egitea eta argudiatzea, bizitza indibidual eta kolektiborako duten garrantzia antzemanaz, eta horiek modu eraginkorrean eta argudiatuan aplikatuz hainbat testuingurutan, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzeko.**

Bizikidetzak ematen duen aberastasuna, eta indarkeria eta diskriminazio mota oro baztertzen duten, pertsonen intimitatea errespetatzen duten eta jokabide inklusiboa, solidarioa eta ez-sexista sustatzen duten arau zibiko eta etikoak ezarri eta errespetatzeko beharra aitortzea. Elkarbizitza baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa bermatuko duten balio eta jarrerengatik beharra. Jolas kooperatiboak, elkarrizketak, erabakiak hartzeko prozesuak, gatazketan bitartekaritza-lana egiteko ariketak edo gizartearentzako zerbitzu-jarduerak bultzatu daitezke. Funtsezkoa da argudiatzeko trebetasunak garatzea eta oinarrizko kontzeptu etiko eta zibiko batzuk aztertzea: «ongia», «balioa», «bertutea», «araua», «betebeharra», «askatasuna», «erantzukizuna», «herritartasuna». Horretarako, besteak beste Giza Eskubideen eta Haurren Eskubideen Adierazpen Unibertsala hartuko dugu kontuan. (Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, CP3, KD3, KPSII3, KPSII4, HK1, HK2, HK3, EK1, KAKK1).

**3. Gizabanakoaren, gizartearen eta naturaren arteko harreman sistemikoak aztertzea, arazo ekosozialei buruzko ezagutzaren eta gogoetaren bidez, pertsonetikoa eta**

**planetarekiko errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin bat datozen balio eta praktikekin aktiboki konprometitzeko.**

Beharrezkoa da gure existentziaren dimentsio ekosoziala ulertzea, planetaren baldintza eta muga ekofisikoak ezagutzea, eta giza ekintzen aztarna ekologikoa kritikoki ebaluatzea. Horretarako, beharrezkoa da ikasleek informazio fidagarria bilatzea eta aztertzea, funtsezko zenbait kontzeptu menderatzea (hala nola, «sistema», «prozesua», «globala-tokikoa»), eta gai izatea biodibertsitatearen kontserbazioa eta giza bizitzaren baldintzak arriskuan jartzen dituzten arazo eta mehatxu nagusiak deskribatzeko, batez ere krisi klimatikoa nabarmenduta. Hala, ingurumenarekiko praktika eta ohitura arduratsuak, gainerako animaliekiko jarrera enpatiko eta errespetuzkoak eta bidegabekeriekiko sentsibilitatea bultzatuko dira. Besteak beste, eguneroko bizitzan ura, energia eta hondakinak modu arduratsuan kudeatzera bideratutako ekintzak. (Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, HKK5, CP1, CP2, STEM5, KD1, KD4, KD5, KPSII2, HK2, HK3, HK4, EK1).

**4. Zalantzan jartzeko eta argudiatzeko trebetasuna garatzea, pentsamendu abstraktua oinarritzen duten pentsamendu-abileziak erabiliz, diziplinaren oinarritzko ezagutzekin lotutako elkarrizketa kooperatiboetan parte hartzeko.**

Pentsamendu kritikoa non-nahi garatzea ezinbesteko baldintza da herritartasuna arduraz egikaritzeko eta pertsonen hezkuntza integrala lortzeko. Gogoeta kooperatiboa ekarriko duten elkarrizketetan parte hartzeko gaitasuna zeharkako ardatz nagusietako bat da. Elkarrizketa eta bizikidetzak baketsua bermatuko duten balioen beharra barneratzea, hortik abiatuta gizabanako gisa eta gizartean nola bizi nahi duten gogoeta egin ahal izan dezaten. Horretarako, zenbait gaitasun barneratu behar dituzte: pertzepzioa (entzutea, behatzea...), ikerketa (hipotesiak ezartzea, aukerak hautatzea...), kontzeptualizazioa (definitzea, alderatzea...), arrazoiketa (argudiatzea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea, kausak eta ondorioak, bitartekoak eta helburuak...), itzulpena (interpretatzea, inprobisatzea...). Gaitasun horiek oinarritzen dute pentsamendu konplexua izenekoak. (Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskribatzaile hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, HKK5, KE3, STEM1, KPSII1, KPSII3, KPSII4, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK1, EK3, KAKK4).

**5. Autoestimua eta ingurunearekiko enpatia garatzea, norberaren emozioak eta sentimenduak identifikatuz, kudeatuz eta adieraziz, eta besteenak ezagututa eta baloratuz, norberaren, besteen eta naturako gainerakoentzako zaintzan eta estimuan oinarritutako jarrera hartzeko.**

Hezkuntza emozionala ezinbestekoa da gizabanako orekatuak eta besteekin harreman oso eta egokiak izateko gai izango direnak prestatzeko. Beharrezkoa da ikasleei behar diren tresna kognitiboak eta behaketa- eta analisi-ohiturak ematea, beren emozioak eta sentimenduak modu asertiboan identifikatu, kudeatu eta adierazteko, baita besteekiko eta natura-ingurunearekiko harreman afektibo eta enpatikoa sustatzea ere. Konpetentzia hau garatzeko jarduerak ezin hobeto integratu daitezke sormena, gogoeta, iritzia eta ezagutza autonomoak sustatuko dituen ia edozein dinamika eta prozesutan. (Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK5, KPSII1, KPSII2, KPSII3, KPSII4, HK2, HK3, HK4, EK3).

## EDUKIAK

---

**Balio Zibiko eta Etikoen Hezkuntza** irakasgai LHko 6. mailarako zehaztutako edukiekin bat dator gure ikasmateriala.

Balioetan heztea ezinbesteko eskakizuna da herritartasuna modu kritiko eta arduratsuan gauzatzeko eta pertsonen hezkuntza integrala lortzeko. Beharrezko tresnak ematen ditu ikasleek konpromiso aktiboa eta autonomia har dezaten bizikidetza demokratikoa artikulatzen duten balio, printzipio eta arauak. Gainera, lagundu egiten du haurrak beren bizi-proiektua eraikitzen hasteko eta XXI. mendeko erronkei buruzko gogoeta propioa egiteko behar den prestakuntza intelektuala, morala eta emozionala lortzen. Oro har, eta ikasleentzako hezkuntza-helburuekin eta oinarrizko hezkuntza amaitzean haiek behar duten irteera-profilarekin bat etorritz, balio zibiko eta etikoei buruzko prestakuntzak berekin dakar ikasleei beren identitate pertsonalaz eta kulturalaz, bizikidetzari buruzko zenbait gai etiko eta sozialez, eta beren bizitzak ingurunearekiko duen loturaz eta ekomendekotasunaz jabetzeko aukera ematen dieten ezagutza, trebetasun, jarrera eta balioen multzoa mobilizatzea. Horren guztiaren helburua da gizarte askotariko eta demokratiko batean bizikidetza zuzentzen duten arau eta balioak autonomiaz antzeman eta aplikatu ahal izatea.

### *FUNTSEZKO JAKINTZAK*

Balio Zibikoen eta Etikoen Hezkuntza ikasgaiko **funtssezko jakintzak** bost multzo hauetan banatzen dira:

- 1. Pentsamendu konplexua** oinarritzen duten trebetasunak: helburua da pentsamendu egituratuagoa eta efizienteagoa garatzen laguntzen diguten pentsamendu-trebetasunak lantzea.
- 2. Autoezagutza eta identitatea:** helburua da ikaslea bultzatzea, bere nortasunaren hainbat alderdiren kontzientzia hartuta eta adierazita, pertsona gisa berori eratzen eta bereizten duen horri buruz ikertzera, emozioen eta desiren kudeaketa

sustatuta, eta norberaren helburuen eta motibazioen inguruko deliberazio arrazionala bultzatuta. Multzo honen barruan, eta hurrengoarekin lotuta, komeni da ikasleek beren iritzia eta irizpide-gaitasuna frogatzea, beren bizitza pertsonalean eragin zuzenekoagoa duten gaiei aurre eginda, hala nola autoestimuari, abusuen eta jazarpenaren prebentzioari, jokabide adizio-sortzaileei eta komunikabideen eta komunikazio-sareen eraginari.

- 3. Pentsamendu kritikoa eta autonomia morala:** autodeterminazio-ariketa bat egiten da, eta horrek, jakina, garrantziko zenbait gai etikori aurre egitea eskatzen du, hala nola autonomia eta heteronomia moralari, izatearen eta izan beharraren arteko bereizketari, bertute eta sentimendu moralen praktika eta identifikazioari eta, oro har, pertsona eta herritar gisa gure bizitzak bideratu behar dituzten balio, printzipio eta arauen inguruko gogoetari.
- 4. Gizartea, justizia eta demokrazia:** helburua da ikasleek pertsona gisa duten nortasunaren erro soziala eta kulturala ulertzea bilatzea, beren ingurune soziala osatzen duten egiturak eta harremanak antzemanda eta haien dimentsio arauemaile, etiko eta afektiboari buruz gogoeta eginda. Horretarako, komeni da ikasleek oinarritzko nozio politiko eta interpertsonal batzuk ulertzea, gure elkarbizitza-esparru demokratikoaren ezaugarri nagusiak identifikatu eta azaldu ahal izateko, eta beren ezagutzak eta iritzia besteekin erkatzeko, gai etiko garrantzitsuei buruzko ikerketaren eta elkarrizketaren bidez (giza eskubideen egoera munduan, pobrezia, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra, aniztasunarekiko errespetuaren balioa, gutxiengoekiko tratua, migrazioaren fenomenoak, klima-krisia, etab.), gai horiei aurre egiteko moduak kritikoki ebaluatuta eta horren inguruko beren iritzia justifikatuta.
- 5. Garapen jasangarria eta ingurumen-etika:** helburua da diziplinarteko eta kooperazioko lanaren bidez ikasleek gure bizimoduaren eta ingurunearen arteko harreman konplexua ulertzea, munduko agendak ezartzen dituen arazo ekosozial handiak identifikatuta eta horiei aurre egiteko moduari buruz eztabaidatuta, naturarekin batera bizitzeko ohitura iraunkorrekin konpromiso etikoa eta afektiboa har dezaten.

Bost arlo horiek gehiago zehaztuz, Curriculumak proposatzen dituen gaiak edo **oinarritzko jakintzak**:

### *1. Pentsamendu abstraktua garatzeko oinarrizko trebetasunak*

- Ideien eta kontzeptuen inguruko ikerketa: hipotesiak formulatzea, imajinatzea, alternatibak bilatzea, ondorioak aurreikustea, aukerak hautatzea.
- Lehen kontzeptualizazioak: kontzeptuak definitzea, adibideak eta kontra-adibideak bilatzea, konparatzea eta kontrastatzea.
- Arrazoiaketaren oinarriak pentsatzean: argudiatzea, kausak eta ondorioak erlazionatzea, irizpideak zehaztea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea.
- Ideia eta kontzeptuen formulazio eta birformulazioak: azaltzea eta deskribatzea, inprobisatzea, laburbiltzea.

### *2. Autoezagutza eta identitatea*

- Giza izaera eta identitate pertsonala. Pertsonen arteko berdintasuna eta desberdintasuna.
- Emozioen eta sentimenduen heziketa.
- Autoestimu pertsonala.
- Adiskidetasuna eta maitasuna. Hezkuntza afektibo-sexuala. Bizitzaren zikloa. Heriotza eta dolua.

### *3. Pentsamendu kritikoa eta autonomia morala*

- Pentsamendu kritikoa eta etikoa. Galdera, gogoetarako tresna gisa. Galdera filosofikoak.
- Etika, gure ekintzen gidari gisa. "Ona" eta "txarra" kontzeptuei buruz gogoeta egitea.
- Arauak, bertuteak eta sentimendu moralak.
- Elkarrizketaren praktika eta argudiatzeko arauak. Erabakiak hartzea. Besteekiko enpatia.

### *4. Gizartea, justizia eta demokrazia*

- Gizarte-bizitzaren oinarriak. Kooperazioa eta lehia. Jokabide zibikoa. Legeak eta kontzientzia pertsonala.
- Printzipio eta balio demokratikoak. Justizia.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

- Emakumeen aurkako abusuen eta indarkeriaren prebentzioa. Jokabide ez-sexista.
- Gure ingurune hurbila aztertzea eta irtenbide tokikoak eta globalak bilatzea.
- Gutxiengoekiko, identitate etniko-kulturalekiko eta genero-identitateekiko errespetua. Multikulturalismoa eta migrazioak.
- Bizipenetik abiatuta gatazkak ebazteko estrategiak.
- Umorearen mugak. Onurak eta arriskuak.

### *5. Iraunkortasuna eta ingurumen-etika*

- Planetaren mugak eta klima-aldaketa.
- Izaki bizidunekiko eta natura-ingurunearekiko enpatia, zainketa eta estimua.
- Gure kontsumo-ohiturak aztertzeke jarraibideak. Kontsumo-ereduak (tokikoa, globala...).
- Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, eta hondakinen kudeaketa.

Balio Zibiko eta Etikoen Hezkuntza ikasgaiarekin lotutako **7 fitxa pedagogiko** prestatu ditugu LHko 6. mailarako, betiere herritarren testigantzak oinarri hartuta. Proposamen horiek **hiru gai nagusitan** daude banatuta, eta atal bakoitzak bere **fitxa didaktikoak** ditu.

## GAI NAQUSIAK

### A. BIZIKIDETZA

Aniztasuna eta elkartasuna dira atal honetan jorratzen diren gaiak, bizikidetza helburu. Jatorri eta arraza askotako pertsonak bizi dira Euskal Herrian. Gizarteko eta, bereziki, ikasgeletako aniztasuna bistaratzea eta balioan jartzea da asmoa: hizkuntza- eta kultura-aniztasunak dakarren aberastasunaz jabetzea, elkarrekiko errespetuan oinarrituta. Gutxiengoekiko eta identitate etniko-kulturalekiko errespetua sustatzea eta migrazioei buruz gogoeta egitea. Beste proposamena gobernu kanpoko erakundeen (GKE) lana ezagutaraztea izango da. Euskaldunok solidario fama dugu: "auzolanerako" joera aipatzen da beti, eta baita herrialde pobretuekiko erakusten dugun elkartasuna ere. Euskal Herrian GKE eta elkarte asko daude, besteak beste, pobrezia, arrazakeria eta diskriminazio egoeren kontra egiten dutenak. Ikasleak elkarren ezagutzaz eta jarduera solidarioen beharrez konturatzeko eta ekintzailtza bultzatzeko balioko du. Umorearen mugak zein diren, hori ere jorratuko dugu: ea edozerekin egin daitekeen umorea; eskola-jazarpenaren (Bulling) eta adarra jotzearen artean dauden aldeak ere ikusiko ditugu.



#### **Gaiak:**

- Inguruko aniztasuna
- GKEak Euskal Herrian
- Umorearen mugak



## *B. GARAPEN JASANGARRIA*

Zer da garapen jasangarria (edo iraunkorra)? Zergatik da beharrezkoa? Hori da jorratuko den gaietako bat: klima-aldaketaren arrazoiak eta ondorioak. Kontsumo arduratsua bultzatuko da. Halaber, 'globalizazioa', 'kapitalismoa' eta 'kontsumismoa' bezalako kontzeptuak ere landuko dira. Balioen krisiaz eta kontraesanez hausnartzea izango da helburuetako bat. 2030 agendan planteatutako Garapen Jasangarrirako helburu nagusiak aztertuko dira ikasleekin (CO2 emisioak % 20 murriztea, besteak beste).



### **Gaiak:**

- Gure planeta krisian

## *C. GENERO-BERDINTASUNA*

Emakumeen ahalduntzea jorratzen da atal honetan. Horretarako, bertsolaritza izango da landuko dugun gaietako bat. Izan ere, Lehen Hezkuntzako 6. mailan ikastetxe askotan bertsolaritza lantzen hasten dira, eta momentu egokia da emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunari erreparatzen hasteko. Gaur egun ohikoa da emakume bertsolariak plazan ikustea, baina ez da beti hala izan. Batetik, begirada historikoa landuko dugu: XIX. mende bukaerako eta XX. mendearen hasierako emakume bertsolari batzuk ezagutzeko aukera izango dute ikasleek. Oso gutxi ziren, eta ezezagunak dira. Sasoi bateko berdintasun eza agerian geratuko da, hala. Bestetik, 80ko hamarkadatik hona emakumeak bertsolaritzan eman dituen aurrerapausoez jardungo dugu. Umorearen gaia ere jorratuko dugu: edozeren inguruan egin al daiteke umorea? Zer toki dauka emakumeak umoregintzan? Zilegitasun bera al du? Existitzen al dira umore femeninoa eta maskulinoa?



**Emakumeak  
bertsolaritzaren  
historian**

**Gaiak:**

- Emakume bertsolariak (XIX bukaeran eta XX hasieran)
- Emakumeak bertsotan 80ko hamarkadan
- Emakumeak eta umorea
-

Ikus ditzagun **fitxa didaktikoak banan-banan**, bakoitzarekin zer landu daitekeen:

### Inguruko aniztasuna (Bizikidetza)

Sarritan ez gara inguruan dugun aniztasunaz jabetzen, baina zenbat jatorri, hizkuntza eta kultura dauzkagu ikasgeletan bertan? Aniztasuna aberastasun moduan ikusten al dugu? Erraza al da integrazioa Euskal Herrian? Aniztasunari buruz hausnartzea da bideo honen helburua, Euskal Herrian bizi diren hainbat kulturatako herritarren testigantzen bidez, gehienak gurasoak eta ikasleak. Hizkuntza, gastronomia, ohiturak... Kultura-aniztasuna eta eleaniztasuna ezagutu eta balioan jartzea, eta gure jarrerak aztertu eta auzitan jartzea da helburua, elkarrenganako errespetua eta bizikidetza landuz. Mundua ekarriko dugu ikasgelara, ikasleen begiradaren bidez. Ditugun aurreiritziez jabetzeko ere balio du atal honek.



Inguruko  
aniztasuna

- Lantzen diren kontzeptuak: aniztasuna, kulturartekotasuna, arrazakeria, elkarbizitza, bizikidetza, diskriminazioa, berdintasuna, erlijioak, integrazioa, herritartasuna, balio etikoak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Kultura- eta hizkuntza-aniztasuna ezagutzeko irrika
  - Arraza eta bizimodu desberdinekiko errespetua erakustea
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Diskriminazio guztiekin kritiko agertzea
  - Arrazakeriaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

## GKEak Euskal Herrian (Bizikidetza)

Bizikidetzak hurbilerako zein urrutirako balio du: mundu berean bizi behar dugu guztiok, ahalik eta ondoen. Hori da Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) lortu nahi dutena. Zer egiten dute GKEek? Zer motatakoak daude? Batzuek bertan egiten dute lana, eta beste batzuek beharra duten herrialdeetara bideratzen dute laguntza. Errefuxiatuak, migrazioak, bidezko merkataritza, pobrezia, gerrak, arrazakeria... hainbat gai eta kontzeptu ezagutzeko bidea emango du. Giza eskubideak, balio etikoak eta gure munduko kontraesanak jorratuko dira bideo-fitxa honen bitartez. Herrian herriko elkarteekin ekintza solidarioak egitera ere animatuko ditugu ikasleak (GKEak zein erakundeetatik sortutako elkartasun proiektuak).



- Lantzen diren kontzeptuak: elkartasuna, bizikidetza, pobrezia, GKE Gobernu Kanpoko Erakundeak, herrialde pobretuak, arrazakeria, diskriminazioa, boluntarioritza, giza eskubideak, balio etikoak, solidarioa, garapena, erantzukizuna, herritartasuna, aniztasuna.
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Bertako zein kanpoko GKEen lana ezagutzeko interesa
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Bizikidetzarako jarrera
  - Itxurarengatik, diru faltarengatik, ideologiarengatik edo beste arrazoi batzuegatik gertatzen diren diskriminazioak salatzea
  - Laguntasunik ezarekiko jarrera kritikoa

## Umorearen mugak (Bizikidetzaz)

Askotan drama gehiago baloratzen da umorea baino, baina umorea gauza serioa izan daiteke. Umorea oso baliagarria da arazoei aurre egiteko: umorez hartuta, ematen du sufrimendua txikiagoa dela. Hori bai, desberdina da norbere buruaz barre egitea eta beste batzuek barre egitea. Non dago burlaren eta umorearen arteko marra? Edozertaz eta edozein modutara egin al daiteke umorea? Umore maskulinoa eta umore femeninoa al daude? Umore erraza eta adimentsua? Zer dira goitik beherako umorea eta behetik gorakoa? Umore matxista, arrazista, homofoboa, xenofoboa... zer diren hausnartzeko balio du bideo-proposamen honek. Bullying-aren eta adarra jotzearen arteko desberdintasunak ere aztertuko dira, ikasgelan jarrera osasuntsuak bultzatzeko..



- Lantzen diren kontzeptuak: umorea, umoregintza, txisteak, bullying-a, adarra jotzea, matxismoa, estereotipoak, rolak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Bizitza umorez hartzeko gogoia
  - Umorearen gaia bizikidetzaren ikuspegitik lantzeko irrika
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa
  - Umorea eta burla bereizten jakiteko nahia

## Gure planeta krisian (Garapen jasangarria)

Gure planeta gaixo dago, ez dugulako behar bezala zaintzen. Aldaketa klimatikoaren arrazoiez eta ondorioez jardungo dugu bideo honetan, krisiaren nondik norakoez eta guk dugun erantzukizunez: izan ere, munduan gehien kontsumitzen eta kutsatzen dutenen artean gaude. Garapen jasangarria (edo iraunkorra), kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera eraginkorra eta hondakinen kudeaketa izango dira jorratuko ditugun gaietako batzuk. Ikasleak hausnartzera gonbidatuko ditugu, eta baita jarrera aktiboa hartzera ere, beraien esku dagoena aldatzeko.



- Lantzen diren kontzeptuak: kapitalismoa, globalizazioa, ekonomia solidarioa, kontsumo-ereduak, bidezko merkataritza, garapen jasangarria, elkartasuna, herrialde pobretuak, diskriminazioa, erantzukizuna, betebeharrak, hondakinen kudeaketa, energia berriztagarriak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Mundua jasangarriagoa egiteko gogoia
  - Planeta, ingurunea eta ingurukoak zaintzeko irrika
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritzia arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Bizikidetzarako jarrera
  - Kontsumo-ohiturei, energia berriztagarriei eta hondakinen kudeaketari buruzko interesa
  - Ekonomia solidarioa eta bidezko merkataritza ezagutzeko interesa

### Bost emakume bertsolari: XIX-XX (Genero-berdintasuna)

Bertsolaritza oso mundu maskulinoa dela uste izan da, XX. mendean hala zelako, baina badirudi sasoi batean nahiko ohikoa zela emakumeek bertsotan egitea eta pixkanaka plaza publikotik ezkutatzen joan zirela. XIX. mendearen amaieran eta XX. mende hasieran baziren nabarmendu ziren emakume bertsolari batzuk. Nortzuk izan ziren? Zergatik ez ditugu ezagutzen? Bideo-proposamen honetan sasoi hartako bost emakume ezagutuko ditugu. Bidenabar, bertsolaritzarekin lotutako proposamen sortzaileak egin ditugu, berdintasunarekin lotuta eta ahozkotasuna lantzeko.



- Lantzen diren kontzeptuak: bertsolaritza, genero-diskriminazioa, berdintasuna, plaza, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak, garapen historikoa
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Bertso munduko emakumeen historia ezagutzeko interesa
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak identifikatzea eta baztertzea
  - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

## Gona oholtza gainera (Genero-berdintasuna)

Emakumea betidanik aritu da bertsoan, baina XIX. mendearen bukaeran Lore Jokoetan parte hartu zuenez gerotik, urte askoan ez zuen bertso txapelketetan parte hartu. 80ko hamarkadara arte. Arantzazu Loidi eta Kristina Mardaras izan ziren aitzindariak oholtzara igotzen, une hartan erabat maskulinizatua zegoen bertso-mundu hartan. Bideoan beraien esperientzia kontatzen dute. Emakumeen presentzia handitzen joan da urtez urte, eta Euskal Herriko txapelduna emakumezkoa da: Maialen Lujanbio. Bilakaera hori lantzeko aukera emango du bideo proposamen honek. Bertsolaritzarekin lotutako proposamen sortzaileak egin ditugu, berdintasunarekin lotuta eta ahozkoasuna lantzeko.



**Gona oholtza  
gainera**

- Lantzen diren kontzeptuak: bertsolaritza, genero-diskriminazioa, berdintasuna, plaza, ahalduztzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak, bilakaera historikoa
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Emakume bertsolariak eta haien bertsoak ezagutzeko interesa
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Emakumea gutxietsi eta diskriminatzea dakarten estereotipo, aurreiritzi eta rolak baztertzea
  - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea



## Emakumea eta umorea (Genero-berdintasuna)

Umoreak ba al du generorik? Zer toki dauka emakumeak umoregintzan? Gizonezkoen zilegitasun bera al dute emakumeek? Existitzen al dira umore femeninoa eta maskulinoa? Emakume umoristez gainera, gai hori jorratu dutenak elkarrizketatu ditugu, gai hau jorratzeko, antzezleak zein bertsolariak. Umorea erabilia, ikasleak hainbat lanketa egitera animatuko ditugu, umorea tresna paregabea baita geure buruez barre egiteko.



- Lantzen diren kontzeptuak: umorea, umoregintza, txisteak, antzerkigintza, genero-diskriminazioa, berdintasuna, ahalduntzea, gizarte-eredua, matxismoa, estereotipoak, rolak
- Ikasleengan bultzatzen diren jarrerak:
  - Bizitza umorez hartzeko gogoia
  - Umorearen gaia genero-ikuspegitik lantzeko irrika
  - Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea
  - Sexu-diskriminazioarekin kritiko agertzea
  - Genero-indarkeriaren eta zapalkuntzaren aurkako jarrera aktiboa azaltzea

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

---

Ikasleei dei egiten zaie parte-hartze aktiboa eta arrazoitua izan dezaten, elkarrizketa errespetuzkoa eta kooperatiboa izan dezaten (gauzak zalantzan jartzetik abiatuta beti), ideiak askatasunez adieraz ditzaten, pentsamendu kritiko eta autonomia izan dezaten, bizikidetzarako beharrezkoak diren arauak eta balioak errespetatu ditzaten, gatazkak era baketsuan eta bitartekaritzaren bidez ebaztu ditzaten, bizi-ohitura osasungarri eta iraunkorrak garatu ditzaten, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak segurtasunez erabili ditzaten, eta besteekiko eta ingurunearekiko dituzten emozioak eta harreman afektiboak modu asertiboan kudeatu ditzaten.

Hauek izango lirateke ikasgaiarekin lotutako **ebaluazio-irizpide orokorrak**, kasuan kasu moldatu beharrekoak:

**A) Ikasleen autoebaluazioa.** Ikasle bakoitzak zertan ikasi duen, zer ikasi duen eta talde gisa zer ikasi duen zehaztu behar du. Ikasleek euren autoebaluazioa egiteko, egin ditzakegun galderak:

### *Edukiari buruz*

- Ea gaiak interesa piztu dion.
- Ea gaiari buruz ikasi izanaren sententzia duen: gutxi-zerbait-dezente-asko.

### *Ikaste-prozesuari buruz*

- Ea bideoa eta testigantzak baliagarriak gertatu zaizkion.
- Ea ikaste-prozesua gustukoa eta eraginkorra izan den berarentzat.
- Ea informazioa bilatzeko arazorik izan duen edo erraza gertatu zaion.
- Ea guztira informazio berri asko jaso duen eta hausnartzeko balio izan dion.

### *Bere komunikaziorako gaitasunei buruz*

- Ea iritzia lasaitasunez emateko aukera izan duen ala zailtasunak izan dituen.

- Ea ahozko ekoizpenean lasai sentitu den eta nahi zuena azaltzeko gai izan den.
- Ea pozik dagoen ekoiztako lanarekin.

#### *Talde-lanari buruz*

- Ea talde-lanean eroso sentitu den eta aberasgarria gertatu zaion.
- Ea balioesten duen talde-dinamika ala arazoren bat izan duen.

**B) Irakaslearen ebaluazioa.** Irakasleak ikasleak ebaluatzeko kontuan hartu ditzakeen irizpideak, ikasgaiko konpetentzia espezifikoekin lotutakoak:

#### *1. konpetentzia espezifikoarekin lotuta*

- Ea gai den norberaren kontzeptu egoki bat eraikitzeko, gainerakoekin eta naturarekin lotuta, modu seguru eta kritikoan, identitateari buruzko ezaugarriekin lotutako informazio analogikoa eta digitala eta adierazpen artistikoak antolatuz eta sortuz.
- Ea gai den bere autoestimua eta autonomia garatzeko, besteekin harmonian, emozioak adieraziz eta identifikatuta eta desirak eta helburuak argituz.
- Ea gai den identitatea garatzearekin lotutako oinarrizko kontzeptuen inguruan gogoeta egiteko (emozioak eta sentimenduak, autoestimua, adiskidetasuna, maitasuna, familia, kultura...), banakako eta taldeko ikerketa-dinamiken bidez.

#### *2. konpetentzia espezifikoarekin lotuta*

- Ea posizio moral autonomoa sortzen duen, deliberazio arrazionalaren bidez eta beste batzuekiko errespetuzko elkarrizketaren bidez, zenbait balio eta bizimoduren inguruan.
- Ea bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta bidezkoa sustatzen duen, baita gatazkak konpontzeko konpromisoa ere, halakorik dagoenean, gizakiaren izaera sozial eta politikoari buruzko ikerketatik abiatuta.
- Ea genero-berdintasuna, indarkeriaren gaitzespena eta gutxiengoekiko eta identitate desberdinekiko errespetua bezalako

balioekin konpromiso aktiboa hartzen duen, balio horiekin lotutako arazo tokiko eta globalei buruzko argudio-elkarrizketatik abiatuta.

### *3. kompetentzia espezifikoarekin lotuta*

- Ea klima-aldaketaren arrazoiak ulertzen dituen, eta gai den hura geldiarazteko hainbat aukera ebaluatzeko eta garapen jasangarrirako helburuak lortzeko, ingurune hurbilean kausak eta arazo ekosozialak identifikatuz.
- Ea aktiboki konprometitzen den pertsonekiko, animaliekiko eta planetarekiko errespetuarekin, eta haien zaintzarekin eta babesarekin bat etorriko diren balio, jardun eta jarrera afektiboekin, uraren eta energiaren kontsumo arduratsua eta mugikortasunaren eta hondakinen kudeaketa eta erabilera iraunkorra sustatuko dituzten jardueretan parte hartuz.

### *4. kompetentzia espezifikoarekin lotuta*

- Ea galderaren izaera kontzeptu gisa ulertzen duen, zalantzan jartzeak giza jardueran duen garrantzia baliaraziz eta ingurune hurbilean esparru etiko-zibikoko galderak identifikatzeko eta lantzeko gaitasuna garatuz.
- Ea elkarrizketa kooperatiboaren bidez besteekin interakzioan jarduten den, jokabide gizalegezko eta demokratikoak eta balio komunek, errespetuak eta enpatiak bideratutakoak modu arrazoitu eta autonomoan hartuz.
- Ea pentsamendu konplexua oinarritzen duten pentsamendu-trebetasun nagusiak garatzen dituen: pertzepzio-trebetasunak (entzutea, behatzea...), ikerketa-trebetasunak (hipotesiak formulatzea, aukerak hautatzea...), kontzeptualizazio trebetasunak (definitzea, alderatzea...), arrazoitze-trebetasunak (arrazoiak ematea, zatiak eta osotasuna erlazionatzea...) eta itzulpen-trebetasunak (interpretatzea, inprobisatzea...) dinamika gidatu indibidual eta kolektiboen bidez.

### *5. kompetentzia espezifikoarekin lotuta*

- Ea norberaren eta besteen emozioak eta zaintza modu orekatuan kudeatzeko jarrera garatu duen, norberaren emozioak identifikatuz, aztertuz eta modu asertiboan adieraziz eta besteenak antzemanaz eta baloratuz, sormen- eta hausnarketa jardueren inguruan.

- Ea adiskidetasunean, maitasunean eta besteen eta ingurunearen zainketan oinarritutako jarrera hartzen duen, beste pertsona batzuekiko eta ingurunearekiko interakzio zibiko eta etikoaren esperientzia afektibotik eta horren inguruko gogoetatik abiatuta.

## NOIZ ETA NOLA ERABILI

(planteamendu didaktikoaren antolaketa eta metodologia)

### • *NOIZ erabili*

Balio Zibikoen eta Etikoen Hezkuntza irakasgaia ematean erabiliko da ikasmaterial hau, LHko 6. mailan. Irakasleak erabakiko du noiz erabili eta jarduera bakoitzari zenbat denbora eskaini.

### • *NOLA erabili*

Irakasleak Interneten dauka ikasmateriala, lizentzia librearekin erabilgarri. <http://ikasgelan.ahotsak.eus/> atarian aurkituko du, **Gaiak** atalean, hain zuzen. Euskal Herriko ikastetxe orok du erabiltzeko aukera. Asko dira bideo-fitxak, gero eta gehiago. Horregatik, bost ataletan banatuta dagoen bilaketa-sistema bat garatu dugu, bakoitzak interesatzen zaiona errazago aurkitu dezan:

- Motak
- Mailak
- Gaiak
- Ikasgaiak
- Proiektuak

Erabiltzaileak, bere interesen arabera, laukitxoetan (bakarrean edo nahi bestetan) klik egiteko aukera dauka. Adibidez:

- “EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” (proiektua)
- Balio Etikoak (ikasgaia)
- Genero berdintasuna (gaia)

**-Motak.** Bi motatako bideo-fitxak daude: 1. Fitxa didaktikoak; 2. Kantak eta jolasak. Ikasmaterialekoak fitxa didaktikoak dira.

**-Proiektuak.** Hainbat proiektutarako prestatutako bideo-fitxak ditugu.

“EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan” proiektua aukeratuz gero, proiektu horretarako prestatu ditugun lanketa-proposamen guztiak agertuko zaizkigu.

**-Ikasgaiak.** Ikasgaien zerrendan, nahi duena aukera dezake irakasleak. Adibidez, “Balio Etikoak”en klik eginez gero, irakasgai horrekin lotutako fitxa guztiak agertuko zaizkio.

**-Gaiak.** Gaien zerrendan, gai bat aukera dezake irakasleak. “Genero berdintasuna” aukeratuz gero, adibidez, gai horrekin lotutako fitxak agertuko zaizkio.



**-Mailak.** Etapa bakoitzean zer fitxa dauden ikusteko aukera ere badauka irakasleak. Adibidez, LHRako zer fitxa didaktiko dauden.

Webgunean eginiko bilaketa ororen emaitza ikus-entzunezko bat izaten da beti. Eta hantxe izango du irakasleak beharrezko informazio guztia: bideoa, laburpena, proposamen didaktikoa, informazio osagarria... Adibiderako, ikus fitxa hau: <http://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/euskararen-transmisioaren-etena>

Bideoa eta proposamenak ikusita, irakasleak erabakiko du nola erabili: proposatzen diren jarduerak bere egin, beste batzuk prestatu edo zer lanketa egin nahi duen eta zenbat denbora eskaini gai horri. Unean uneko egoerari, mailari eta ikasle-taldeari egokituta hartuko ditu erabakiak, ikasleekin adostasunak bilatuta.

Nahi izanez gero, irakasleek zein ikasleek ikus-entzunezkoak euren ordenagailuetara jaisteko aukera dute. Gainera, ikus-entzunezkoek transkripzioa daukatenez, testua modu errazean lortzeko aukera dago, inprimatu eta ikasleei emateko moduan.

Irakasleek eta ikasleek materialari buruzko iritzia emateko eta ekarpenak egiteko aukera dute webgunean bertan une oro. Ikasmateriala erabilia sortutako ekoizpenak partekatzeko aukera ere bai. Hala, aldaketak egiten eta materiala hobetzen goaz etengabe. Interaktiboa da.

Eskubide irekiak (HBI) dituzten elementuak eskainiko ditugu. Internet sareko doako zerbitzuak eta tresnak erabiltzea proposatzen da: edukiak eta baliabideak sarean partekatzeko proposamenak egiten dira eta komunitate birtualetan eta sare sozialetan parte hartzea ere bideratzen da. Multimedia elementuen arteko barne-kohesio egokia izatea bultzatzen da, mezu orokorra ondo ulertu eta bereganatu ahal izateko.



## PLANTEAMENDU DIDAKTIKOA

Gure fitxa didaktikoak ez dira Sekuentzia Didaktikoak, baina Sekuentzia Didaktikoen izaera eta metodologia kontuan hartuta prestatuko ditugu (Dolz & Schneuwly 1997); horrenbestez, SDak sortzeko bidea emango dute. Sekuentzia Didaktikoak helburu konkretu eta erreal bati erantzuteko jarduera-multzoak dira. Guk bideoekin lotutako jarduerak proposatuko ditugu eta baita helburu konkretuak ere (ahozko ekoizpenak batik bat, hainbat bitarteko erabiliz eta azken helburuetarako hainbat euskarri erabiliz); eta ebaluazio-irizpideak ere bai. Bidenabar, materiala eta ikaste-prozesua esanguratsuak izatea bermatuko dugu. Irakaslearen esku dago jarduera horiek harilkatu, gaian sakondu eta egokia iruditzen zaion ekoizpen erreal batekin amaitzea. Gure proposamen didaktikoak irekiak dira, eta irakasleak nahi bezala molda ditzake.

Landuko diren jarduerak egitura kooperatiboak erabiliz gauzatzea proposatuko dugu (Kagan 1999). Ikasten ari diren berdinen arteko interakzioa sustatuko da, benetako ideien trukea eta eztabaida. Adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatuko dira, talde-lanean. Ikasketa kooperatiboaren printzipioak:

- Elkardependentzia positiboa.
- Aurrez aurreko interakzioa.
- Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.
- Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa.

77/2023 Dekretuan argi esaten da ikasleek beren ikasteko prozesuan eta beren garapen pertsonalean eta sozialean inplikazio aktiboa izan dezaten sustatu behar dela. Beharrezko tresnak eman behar zaizkie konpromiso aktiboa eta autonomia har dezaten bizikidetz demokratikoa artikulatzen duten balio, printzipio eta arauetarako.

Ikaskuntza aktiboa bultzatzea da material honekin lortu nahi dena. Horrenbestez, ikasleek helburu jakin bat lortzeko zerbait sortu beharko dute. Hots, zeregin esanguratsua burutu beharko dute. Horretarako, ikasleen arteko lankidetz bultzatuko da. Motibatzailea eta atsegina izatea izango da: ikasleen adina, testuingurua, interesak, etab. kontuan hartuko dira. Baita ikasleen aniztasuna eta inklusibitatea ere: gaitasun diferentea duten ikasleen

beharretara egokitzeko aukerak emango dira, askotariko errealitateak kontuan hartzeko aukera (irakasleak erabakiko du hori nola egin).

Fitxa pedagogikoen oinarria testigantzez osatutako zazpi bideo dira. LHko 6. mailan *Balio Zibikoak eta Etikoak Hezkuntza* irakasgaiaren lantzen diren edukiei erreparatuta osatutako ikus-entzunezko multzoa. Bideo horiek bereziki [Ahotsak.eus](http://Ahotsak.eus) dute oinarrian; adin askotako herritarren testigantzak.

Bideoak **“Proposamen pedagogikoa”** izeneko atala du beti. Atal nagusia hori da, eta bertan bideoarekin lotutako jarduera-ereduak proposatzen dira. Bestalde, fitxa pedagogikoa informazio gehiago ere izan daiteke (irakasleentzat egokia eta baliagarria izango dela ikusiz gero jartzen duguna): testua, informazio osagarria, lotura interesgarriak, argazkiak...

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz fitxako atalak:

#### **A. “Proposamen Pedagogikoa” atala:**

Ikasleek garatu beharreko oinarrizko gaitasunekin lotuta egongo dira proposamen pedagogikoa. Ikasleen autonomia, sormena, ikerketa, lan kooperatiboa eta ikasten ikasteko estrategiak bultzatuko dituzte. Proposamen pedagogiko guztietan, lehenengo eta behin, hauxe jartzen dugu: proposamen horrekin ikasleengan zein jarrera sustatzea dugun helburu. Adibidez, [Dena aprobetxatzen zen](#) fitxan hauek datoz:

- *Garapen jasangarriaren aldeko joera*
- *Ondasun komunak errespetatu eta zaintzeko ohitura*
- *Aniztasuna aintzat hartzeko eta era positiboan baloratzeko gogoia*
- *Gizabanako oro errespetuz tratatzeko asmoa. Denen iritziak arretaz entzun eta kontuan hartzeko borondatea*
- *Arbasoen bizimodua eta historia hurbila ezagutzeko interesa*

Jarduera-proposamenak bideoarekin lotuta daude, eta **hiru alditan** banatuta. Aldi bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen ditugu:

#### **1. Bideoa ikusi aurretik egitekoak:**

- Aurrezagutzak aktibatu
- Erreferentziak eman
- Iritziak jaso (galderak, jolasak, dinamikak)

- Hipotesiak egin

## 2. Bideoa ikusi bitartean egitekoak:

- Aurrezagutzak konparatu
- Ulermenarekin lotutako zalantzak argitu eta hiztegia landu

## 3. Bideoa ikusi ondoren egitekoak:

- Ulermena ziurtatu
- Iragana eta oraina konparatu (galderak, jolasak, dinamikak)
- Gaur egungo egoerari begiratu. Hausnarketa eragin (talde-dinamikak).

- **Azken ekoizpena:** hainbat ekoizpen proposatzen ditugu aukeran. Hamaika azpi-ataletan sailkatu ditugu ekoizpen proposamenak:

*"Testigantza bila"*. [Ahotsak.eus](http://Ahotsak.eus) webgunean eta oro har sarean testigantza gehiago bilatzea, adibidez herrikoak, gai horri buruz gehiago jakiteko eta gertuago sentitzeko.

*"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleek elkarrizketak egitea, etxeko eta gertuko egoera ezagutzeko. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daiteke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

*"Hitzen arrastoan"*. Testigantzen barrunbeak aztertzea, alderdi linguistikoa bereziki, eta hitz aproposak aukeratuz nahi duguna deskribatzea, azaltzea...

*"Gaur egunera begira"*. Gaur egungo egoerari begiratzea, atzokoa eta gaurkoa alderatu ahal izateko.

*"Historia egiten"*. Ikerketa eginez, historiara begiratu, eta gai horrek izan duen garapena ezagutzeko aukera izatea.

*"Mundu zabalean"*. Mundura begira jartzea, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta gaia bere osotasunean ulertzeko.

*"Eman iritzia"*. Gai horri buruz hausnartzea, nork bere iritzia eraikitzeko.

*"Ika-mika"*. Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea, eta gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzea, eztabaida formalen bidez batez ere.

*"Bestearen azalean".* Besteen azalean jartzea eta egoerak asmatzea, adibidez rol-jokoen bidez enpatia lantzeko.

*"Sormena lagun".* Irudimena lantzeko ariketak, sormena bultzatzen dutenak - ilustrazioa, komikia, dantza, abestiak, eskulanak...- *brainstorming* edo ideia-ekaitzak, lehiaketak eta festa-giroko jarduerak sustatuz.

*"Jolasten".* Jolasa erabiliko da, eskulanak batez ere, jolastuz ikasteko.

- **Ekoizpena burutu eta partekatu.** Azken ekoizpenean ahozkotasuna lantzea da gure erronka. Ahozkoari ematea garrantzia. Horrenbestez, ahozko jardueraren bat egingo dute ikasleek, gelakideei haien lanaren emaitza ezagutarazteko (azalpena, antzezlanak, eztabaida, ozen irakurtzea...). Jarduerak laburrak izango dira eta grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da.
- **Grabazioak ikusi eta ebaluatu.**

**Ebaluazio-irizpideak.** Fitxa guztietan jarriko ditugu, irakasleak ikasleak ebaluatzeko eta ikasleen autoebaluaziorako irizpideak. Grabazioak ikusi ondoren egin daiteke ebaluazioa. Hona hemen adibide bat, "[Santa ageda eskoriatzan: nesken parte-hartzea](#)" bideoarekin lotutakoa.

## **B.** Gainerako atalak:

Atal hauek ere badituzte fitxek:

- **Testua.** Grabazioaren edukia, idatziz, ulermena errazteko. Irakasleak testua inprima dezake, eta ikasleei banatu, bideoa hobeto ulertzeko lagungarria gertatuko zaiela iruditzen bazaio.
- **Testuingurua.** Gaian kokatzeko balio duen informazioa, jakingarriak: testuingurua, historia, azalpenak... Eta gaiarekin lotutako beste bideo batzuen loturak:

*Ahotsak.eus* webgunekoak, *Ikasgelan* webgunekoak zein Interneteko bestelako material interesgarriari buruzko erreferentziak.

- **Argazkiak.** Ikasmaterialeko proposamenek hala eskatzen dutenean, argazkiak ere jartzen ditugu fitxetan. Adibiderako, ikus [Bertsolaritzaren garapena](#) fitxa.



## PROPOSAMEN PEDAGOGIKOAK

### 1. *Gaia*: **Inguruko aniztasuna** Bizikidetza

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/inguruko-aniztasuna>



The screenshot shows the website interface for 'ahotsak IKASGELAN'. The navigation bar includes 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Inguruko aniztasuna'. Below the heading is a short paragraph in Basque. A video player is embedded, showing a woman clapping. To the right of the video is a metadata box with the following information:

<b>Mailak:</b>	LH
<b>Proiektuak:</b>	EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
<b>Ikasgaiak:</b>	Herritartasunerako Hezkuntza, Balio etikoak
<b>Gaiak:</b>	Integratzen diren...
<b>Puntuak:</b>	0 puntu 5 izarreko maximotik
<b>Irizkiak:</b>	0 iritzi guztira

### **Bideoa ikusi aurretik**

Aurrezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa gure inguruko aniztasunari buruzkoa dela esanda:

- Nongoak dira zure gurasoak? Kanpokoak direnak, nolatan etorri ziren Euskal Herrira?
- Jatorrien zerrenda bat egin dezakegu eta munduko mapan kokatu.
- Nolakoak dira aipatutako herri/herrialde horiek? Zer berezitasun dituzte? Kontatu nolakoak diren! Zein da urrutien dagoena? Zein da desberdinenena? Zergatik?

- Zenbat hizkuntza hitz egiten dira guztira gela honetan? Hizkuntzen zerrenda egin dezakegu eta hizkuntza horietan "kaixo" hitza idatzi.
- Zer abantaila eta zer desabantaila ditu "desberdina" izateak? Zuen ustez, baloratzen al da hizkuntza- eta kultura-aniztasuna?
- Aipatu zuen etxeetan mantendu diren ohiturak: jakiak, jantziak, ospakizunak (adibidez, kuskusa, matea...).

### **Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu. Adibidez, "piñata".

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### **Bideoa ikusi ondoren**

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Zer da integrazioa? Nola ulertzen duzue? Noiz dago pertsona bat herri batean integratuta?
- Elkarriketatu guztiek euskaraz hitz egiten dute. Zuen ustez, euskarak balio al du errazago integratzeko?
- Ezagutzen al zenituzten bideoan aipatu diren herrialdeak, hizkuntzak eta ohiturak?
- Ba al zenekiten armenieraz eta euskaraz hitz batzuk berdin esaten direla?
- Ospakizunak aldatu egiten dira kultura batetik bestera. Ba al dakizue Txinan urtea ez dela urtarrilean hasten? Noiz hasten da?
- Ba al dakizue zer den Ramadana? Noiz izaten da? Zergatik egiten da? Zer erlijio ezagutzen dituzue?
- Gabonak erlijio katolikoarekin lotuta daude, eta ez dira toki guztietan ospatzen. Oparien ohitura ere aldatu egiten da toki batetik bestera. Hona Olentzero eta erregeak etortzen dira... eta beste toki batzuetara?

Gelan bertan dagoen aniztasunaz jabetzeko, collage batzuk egitea proposatzen dugu, gelako atean edo Ikastetxeko korridoreetan jartzeko, bertatik pasatzen direnek ikus ditzaten. Mapa bat ere izan daiteke, toki desberdinetako ezaugarriak erakusten dituena.





Iturria

Azkar egiteko modukoa baina aldi berean ikusgarria izatea komeniko litzateke. Ikasleak taldeka banatuko dira, eta talde bakoitzak panel bat prestatuko du, egoki iriztitako eran. Koloretako kartoi meheak erabil daitezke horretarako. Margoak, koloretako paperak, argazkiak, marrazkiak... Irudimena erabiltzera gonbidatuko ditugu.


**3. Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak.** [101 L webgunea](#) ezagutuko dugu. Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak jaso eta ezagutarazteko sortu zen egitasmo hori, 2015. urtean. Ehun hizkuntza baino gehiago jaso dituzte. Ikasleak webgunean sartu, eta arakatzera gonbidatuko ditugu. Modu asko daude bilaketak egiteko: herriaren arabera, hizkuntzaren arabera, elkarrizketatuen izenaren arabera eta proiektuaren arabera.


Herria	Herria	Herria
A. Decharian Jonathan (Joni) (Joni)	Nami Sobli (Nami) (Nami)	Abbie White (Abbie) (Abbie)
Acharya Lama Sonam (Sonam) (Sonam)	Adina Olaru (Adina) (Adina)	Adrian (Adrian) (Adrian)
Adriana Maria Schiau (Adriana) (Adriana)	Ahmed Salem (Ahmed) (Ahmed)	Alpha Duro Di Alabou (Alpha) (Alpha)

<https://101.ahotsak.eus/>

Binaka edo talde txikitan ipini, eta taldetxo bakoitzak hizkuntza bat (ezezaguna zaiona) aukeratu dezake eta taldekideekin hizkuntza horren gainean hausnartu. Ondoren, taldeko bozeramaileek hizkuntza horren berri emango diete gelakideei, ahoz eta gehiegi prestatu gabe (modu nahiko inprobisatuan): non hitz egiten den, zer berezitasun dituen, zergatik iruditu zaien erakargarria...


4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Lau adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete. Proposamenak ikasleen gaitasunen eta erritmoen arabera moldatu daitezke; irakasleak erabakiko du hori nola egin.
- *"Testigantza bila"*. Bideoko elkarrizketatuen fitxak 101L webgunean daude. Gehienak landuta daude, eta hainbat bideo-pasarte dituzte ikusgai. Bideoko pertsonen buruzko informazio gehiago lortzea da proposatzen dena. Ikasleak binaka jar daitezke, eta bikote bakoitzak bideoko pertsona bat aukeratu dezake.





A card for Sadina, featuring a photo of a young woman with dark hair, smiling. The text on the card reads: Sadina . PUKA (ALBANIA) ALBANIERA, EUSKARA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Sadina](#)



A card for Vahe Papyan, featuring a photo of a young man with dark hair, wearing a yellow shirt. The text on the card reads: Vahe Papyan ARMADIR (ARMENIA) ARMENIERA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Vahe](#)




A card for Malaika Ihsanullah, featuring a photo of a woman wearing a blue and white patterned headscarf. The text on the card reads: Malaika Ihsanullah LANGRIAL (PAKISTAN) EUSKARA, URDUA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Malaika](#)



A card for Emilio Malvaso, featuring a photo of a man with a shaved head, smiling. The text on the card reads: Emilio Malvaso CALABRIA (ITALIA) EUSKARA, ITALIERA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Emilio](#)




A card for Irina Tichtchenko, featuring a photo of a woman with dark hair, wearing a patterned top. The text on the card reads: Irina Tichtchenko KRASNODAR (ERRUSIA) ERRUSIERA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Irina](#)



A card for Mia Rissanen, featuring a photo of a woman with blonde hair, wearing a patterned top. The text on the card reads: Mia Rissanen HELSINKI (FINLANDIA) SUOMIERA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Mia](#)



A card for Awa Balla, featuring a photo of a woman with dark skin and a yellow top, smiling. The text on the card reads: Awa Balla . EIBAR (EUSKAL HERRIA) WOLOFERA. Below the photo is a play button icon. The card is pinned to a blue-lined background with a paperclip at the top right.

[Awa](#)

Grabazio guztiak ez daude sareratuta oraindik. Ikasleek hala nahi badute, posible da 1011.ahotsak.eus webguneko beste elkarrizketatu bat aukeratzea ere, euskaraz hitz egiten duena; hona hemen adibide batzuk: [Khalila](#), [Sidi](#), [Wednesday](#), [Ding Chen](#), [Petra Elser](#), [Jordi Serra](#), [Zishan Tariq](#), [Barry Manley](#), [Aritz Branton](#), [Aurel Ibo](#), [Miki Lamedica](#), [Thomas Pierre](#), [Cristina](#), [Hassun](#)...

Ikasleek ahozko aurkezpen labur bat egingo dute, egokitu zaien pertsona horri buruz eta iritzia ere emango dute. Aurkezpena prestatu egingo dute; pantaila bat eta bozgorailua beharko dira, bideo-irudiak ikusteko.

- **Biografia laburra:** Nola deitzen da? Zenbat urte ditu? Non bizi da? Noiztik? Zein da haren historia? Nongoak dira haren gurasoak?
- **Bideo-pasarte bat** aukeratu, interesgarria iruditzen zaiguna, gelan erakusteko
- **Zergatik aukeratu** dugu bideo-pasarte hori?

Ariketa honek bideoan agertu diren pertsonak gehiago ezagutzeko eta gertuago sentitzeko balio dezake, eta inguruan daukagun aniztasunaz hobeto jabetzeko.

- *"Mundu zabalean."* Mundua oso zabala eta aberatsa da. Ez dugu behar beste ezagutzen. Proposamen honen bidez munduko herriak eta herrialdeak hobeto ezagutuko ditugu. Ikasle bakoitzak herrialde bat edo jatorri bat aukeratu du (adibidez, Nepal, Andaluzia...). Berak ezagutzen duena izan daiteke, edo erakargarria gertatzen zaiona. Jatorriak ez errepikatzea komeni da; batek baino gehiagok berdina nahi izanez gero, zozketa egin dezakete.

Hona hemen herri/herrialde horri buruz lortu dezaketen informazioa:

- Kokapena
- Hizkuntza(k) eta alfabetoa(k)
- Bertako leku bereziak/ezagunak
- Gastronomia
- Ohiturak (erlijioak, jantziak, ospakizunak, jolasak, abestiak...)



Ikasle bakoitzak ahozko aurkezpen txiki bat egingo du aukeratu duen herriari edo herrialdeari buruz. Argazkiak erakutsiko ditu, inprimatuta edo pantaila batean, azalpenei laguntzeko. Posible da baita ere PPT bat edo antzeko aurkezpenen bat prestatzea, aurkezpena aberasteko.

Munduko mapa batean edo bola batean jatorri guztiak ipintzen joan daitezke ikasleak; txintxetak erabil ditzakete horretarako.


- *"Jolasten"*. Eskulanak egitea proposatzen dugu. Gela lau zpabost laguneko talde txikitik banatu, eta talde bakoitzak eskulan bat aukeratzea. Ikasleek aukeratu dezakete zer egin nahi duten, beren gustuen eta gaitasunen arabera.

Lau adibide dakartzagu hona, baina posible da ikasleek beste eskulan batzuk proposatzea ere. Hori bai, munduko beste toki bateko eskulana izatea komeni da, ez Euskal Herrikoa.

7. **"Piñata"**. Mexikon eta Ipar Amerikako beste herrialde batzuetan "piñata" k egiteko ohitura dute. Festa guztietan erabiltzen dituzte, bereziki umeak daudenean. Goxokiz bete ostean zintzilik ipintzen dituzten paperezko egiturak dira; umeek makila batekin egitura apurtu behar dute, begiak estalita, barrukoa lortu ahal izateko. Tamaina, forma eta kolore askotako "piñata" k daude (Euskal Herrian lurrezko lapikotxoekin antzeko jolasa egin izan da).

**Behar den materiala**

- Puxika handi bat (piñata biribila egiteko)
- Papera edo kartoia
- Egunkari orriak
- Pinocho papera, koloretakoa
- Kola
- Guraizeak

A photograph showing a person working on a large, colorful piñata. The piñata is made of many layers of paper in various colors (red, orange, yellow, green, blue, purple). The person is wearing glasses and is focused on their work. The piñata is decorated with colorful streamers and has a large opening at the top.

Iturria: AFP

Politena ikasleek "piñata" modu tradizionalen egitea izango litzateke. Adibiderako, ikus [bideo hau](#). "Piñata" k egitea nahiko langintza luzea izaten denez, hona hemen "piñata" k erraz egiteko bi adibide: 1. "Piñata" erraza paperezko lanpararekin (soketatik tiraka irekitzen da; ez dago makilarekin jo beharrik: arrisku gutxiago). 2. ["Piñata" kartoizko kaxarekin](#).

2. **"Amets-harrapatzailea"**. Ipar Amerikako herri indigenen ohitura da. Amesgaiztoak uxatzeko balio du: amets politenak soilik uzten ditu pasatzen; amesgaiztoak katigatuta geratzen dira. Armiarma sare baten antzekoa da, eta zintzilik ipintzen da, normalean logelan. Norberarentzat egin daiteke edo norbaiti oparitzeko.



[Iturria](#)

#### Behar den materiala

- Uztai bat
- Lumak edo koloretako zintak eta bolatxoak
- Haria
- Guraizeak



[Iturria](#)

Nola egin erakusten duen [bideo bat](#). Modu askotakoak daude; ikasleak bere gustukoa aurkitu dezala.

3. **"Origami"**. Japoniako eskulan bat da eta "papera tolestea" esan nahi du. Hainbat forma egin daitezke papera tolestuta: animaliak, loreak... Hori bai, debekatuta dago guraizeak erabiltzea!



[Iturria](#)

Origami loritoa nola egiten den ikus daiteke [bideo honetan](#). Ikasleek nahi duten forma aukeratu dezakete, noski. Posible da hainbat forma egiten ikastea ere! Adibidez, taldekide bakoitzak forma bat egiten ikastea eta gero lagunei nola egin erakustea.

4. **"Pazkoako arrautzak"**. Europa ekialdean eta erdialdean arrautzak margotzeko ohitura dute, Pazkoa garaian. Ondoren, ezkutatu egiten dituzte, eta umeek topatu egin behar dituzte. Arrautza egosiekin egin daiteke eta baita ere arrautzei zulotxoak egin eta barrutik hustuta. Arrautza egosiak direnean, erabiltzen den pintura berezia da, eta arrautza jan egin daiteke. Arrautza hutsek, berriz, apaingarri moduan balio dezakete, ez baitira usteltzen.





[Iturria](#)

Hona hemen arrautzak margotzeko modu bat, janarirako koloragarria erabilia.

Talde bakoitzak egindako eskulanaren ahozko aurkezpena egingo du. Nongo ohitura den, zer material erabili duten, nola egin duten... eta, bukaeran, emaitza erakutsiko dute.

- *"Sormena lagun"*. Aniztasun Festa antolatu dezakete ikasleek, ikasgelan edo ikastetxean. Proposamen hau aurrekoarekin batu daiteke, eta eskulanak ere festa horretarako egin ("piñata", adibidez). Ikasle bakoitzak zerbait eraman edo prestatu beharko du egun horretarako. Festan ikasle guztiek zerbait egin beharko dute: ipuinak kontatu, errezetak esplikatatu, eskulanak nola egiten diren azaldu, dantza egin, kantatu... Ikasle bakoitzak bere gustuko zerbait aukeratu dezala. Aukera bat: parte-hartzaileei festan jarduera desberdinak egiteko aukera ematea, hainbat txoko edo tailer sortuz. Sormena erabili!

Hemen Aniztasun Festa horretako osagai posible batzuk:

- ✓ **Jatekoa eta edaria.** Gastronomiaren txokoa. Etxean prestatutako jakiak eta edariak eraman ditzakete, ikastetxean jateko. Horietako batzuk

nola egiten diren azaldu dezakete ikasleek, errezetak eramanda. Posible da festan bertan errezeta erraz bat egitea: adibidez, Brasilgo "brigadeiro" bonboiak egiteko ez da surik edo hozkailurik behar.

**"Brigadeiro".**

OSAGAIK:

- Esne kondentsatua
- Gurina
- Kakao hautsa
- Txokolatezko makilatxoak



[Iturria](#)

✓ **Kantak eta dantzak.** Kanten eta dantzen txokoa sortu daiteke. Bertan, munduko toki desberdinetako abestiak eta dantzak ezagutzeko aukera egon daiteke. Aurrez aukeratzea komeni da, eta kanten kasuan letra idatziz eramatea: jatorrizkoa eta itzulpena.


✓ **Ipuinak.** Toki desberdinetako ipuinak ezagutzeko aukera eman dezake txoko honek. Ipuin laburrak izango dira. Ikasle batek jatorrizko hizkuntzan kontatu dezake ipuina eta beste ikasle batek bat-bateko itzulpena egin. Ipuinaren testuingurua ere azaldu daiteke.

✓ **Jolasak.** Gelan bertan jolasteko moduko jolasak aukeratu ditzakete. Esku-jolasak, kanika jolasak, mahai-jokoak... Adibidez, "harritxoan jolasa" munduko toki askotan egiten da, modu desberdinetan.



[Iturria](#)

✓ **Eskulanak.** Eskulanen txokoa eskulan errazak egiteko aukera egon daiteke. Adibidez, "origami" animaliak nola egin, koloretako paperekin.



- ✓ **Jantziak.** Toki desberdinetako jantziak ikusi eta probatzeko txokoa ere egon daiteke. Adibidez, buruan zapia ipintzeko modu desberdinak ezagutzeko aukera eman daiteke.
- ✓ **Ospakizunak eta ohiturak.** Posible da munduko toki desberdinetako ohituren berri emateko txoko bat sortzea ere. Argazkiak erakutsi, eta azalpenak ematea. Adibidez, nola ospatzen den urte berri txinatarra.



[Iturria](#)



[Iturria](#)

Aukera bat: familiako norbait edo lagunuen bat gonbidatzea Aniztasun Festara. Ikastetxe osoko festa ere izan daiteke. Festa grabatzea proposatzen dugu, gero ikusi eta baloratu ahal izateko. Irudiekin bideo bat osatu daiteke, egoki iritzitako eran zabaltzeko: posible da, adibidez, hurrengo ikasturtean ikasleei erakustea.

5. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena edo emanaldia egingo dute ikasleek, gelakideei euren lanaren emaitzak ezagutarazteko. Aurkezpen guztien ondoren, galderentzat, hausnarketentzat eta iritzientzat tarte izango da. Ahal dela, jarduerak grabatu egingo dira, bideoz (ondo egindakoez eta hobetu beharrekoez jabetzeko eta etorkizuneko beste ekoizpen batzuekin alderatzeko). Festaren kasuan ere txoko guztietako jarduerak grabatzea proposatzen da. Ikasleek ahozkoa eta idatzizkoa bereizten ikastea eta pixkanaka ahozko jardunean gero eta hobeto moldatzea komeni da. Irizpideak proposatzeko, irakasleari baliagarriak gerta dakizkioke: [ahozkoaren ezaugarriak](#) eta [baliabideak](#).

## 2. Gaia: **GKEak Euskal Herrian Bizikidetza**

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gkeak-euskal-herrian>



The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website. The main title is 'GKEak Euskal Herrian'. Below the title, there is a video player showing a woman speaking. To the right of the video player, there is a metadata box with the following information:

- Mailak:** LH
- Proiektuak:** EIMA 2.0, Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak

Below the metadata box, there are five stars and the text: '0 puntu 5 izarreko maximotik' and '0 iritzi guztira'.

### Bideoa ikusi aurretik

1. Gaiaren aurkezpena egin: Gobernu Kanpoko Erakundeen lana. Ikasleen aurrezagutzak aktibatu, gisa honetako galderak eginez talde handian:

- Zer esan nahi dute GKE siglek?
- Zer egiten dute Gobernu Kanpoko Erakundeek? Zer motatako GKEak daude?
- Ezagutzen dituzuen GKEen zerrenda egin, guztion artean. Herrian ba al dago GKERik?
- Ezagutzen al duzue GKERen batean dabilen edo GKERen bati laguntzen dion norbait? Zer egiten du?
- Euskaldunok solidario ospea dugu. Beharra duten herrialdeekiko erakusten dugun elkartasuna aipatzen da beti: dirua emateko garaian ez ezik, baita Saharako eta Txernobyleko umeak etxean hartzeko orduan ere. Nola ikusten duzue zuek?

2. Bideoan agertzen diren bi pertsoneri buruzko azalpen laburra eman daiteke. Beñat Arzadun errenteriarrak Mundukiden egiten du lan, liberatu moduan; urte asko igaro ditu Mozanbiken, bertako nekazariei laguntzen. Leire Etxeberria oñatiarrak bi GKEtan kolaboratzen du bere denbora librean: Hotz Oñati eta AMS; bideoan errefuxiatuei laguntzeko sortu zen Hotz Oñati elkarteari buruz hitz egiten du.

### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentziora eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu ditzatela.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Bideoa ikusi ostean, argiago al duzue zer diren GKEak eta nolakoak izan daitezkeen?
- Elizak bere gain hartu izan du aspalditik beharra zutenei laguntzea, bertan zein nazioartean. Nola ikusten duzue laguntza mota hori?
- Mitch hurakana, Siriako gerra... aipatzen dira bideoan, GKEen sorrera bultzatu duten gertaeren artean. Ezagutzen al dituzue jendea laguntzera bultzatu duten gertaera gehiago (Ukrainako gerra, tsunamiak...)?

- Mediterraneoan milaka pertsona hiltzen dira urtero, Europara iritsi nahian. Europan, baina, jarrera nagusia mugak ixtearen aldekoa da. Zer iruditzen zaizue?
- Immigrazioa ez da kontu berria. 50eko hamarkadatik aurrera, asko izan dira Euskal Herrira bizimodu hobearen bila etorri direnak. Gela honetan zenbatek dituzue beste leku batzuetatik etorritako guraso edo aitona-amonak?
- Euskaldunak ere migratzaileak izan gara. Ba al dakizue zergatik eta nora joaten ziren?
- Zuek parte hartuko al zenukete GKE batean? Zer egiten? Zergatik?

Ikasleak GKEen zerrenda bat egitera gonbidatu ditzakegu: Euskal Herriko GKE nagusiez gainera, baita herriko eta bailarako GKEak ere. Hala, laguntzeko zenbat aukera dauzkaten ikusiko dute.



Argazkiak: Janari bilketa supermerkatu batean eta azoka solidario bat. Iturria: [GOIENA](#) / [HITZA](#)

Immigrazioaren gaiari buruz gehiago sakontzeko, bideo hauek ikustea gomendatzen dugu:

- [Etorkinak eta integrazioa](#)
- [Bertakotzen: 50-60-70 hamarkadetako etorkinak](#)
- [Bertakotzen: azken urteotako etorkinak](#)



- 3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin ditzakete.
- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleek elkarrizketak egitea da proposatzen dena: GKE erakundeetako boluntarioak eta langileak izango dira elkarrizketatuak. 2-3 laguneko taldetxoetan egin daiteke. Jarraitu daitezkeen pausoak:

- *Nor elkarrizketatu erabaki*
- *Galdetegia prestatu (inprobisazioari tarte bat uztea ere garrantzitsua da: elkarrizketan bertan galdera berriak sor daitezke)*
- *Grabaketa egiteko ekipoa prestatu (inportantea da ondo dabilen frogatzea)*
- *Hitzordua lotu*
- *Grabazioa ordenagailura deskargatu*
- *Grabazioa entzun eta elkarrizketa idatziz ipini*
- *Bideo-pasarte interesgarrienak aukeratu eta minutuak apuntatu*



Elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ondoren, hainbat lanketa egin daitezke grabazio horrekin:

**A.** Aurkezpen bat egin gelan, egindako lana erakusteko. Elkarrizketaren nondik norakoak azaldu, elkarrizketatuak kontatutako gauza interesgarri batzuk aipatu eta grabazioaren zatitxo bat erakutsi.

- *Nor da elkarrizketatua? Izen-abizenak, nongoa den. Elkarrizketatuaren argazkia/fotograma erakutsi.*
- *Zer GKEtan kolaboratzen du? GKEaren izena.*
- *Zer egiten dute GKE horretan? Eman azalpenak, labur.*
- *Grabatutako bideo-pasarte bat erakutsi (gehienez 3 minutukoa), interesgarria iruditu zaizuna, eta azaldu zergatik aukeratu duzun.*


**B.** Bideo-erreportaje labur bat prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi eta adibideak eman). Gelakideei erakutsi, azalpenak eman. Sarean ere zabaldu daiteke.

- *Nor da elkarrizketatua? Izen-abizenak, nongoa den. Elkarrizketatuaren argazkia/fotograma erakutsi.*
- *Zer GKEtan kolaboratzen du? GKEaren izena.*
- *Prestatutako bideo-erreportajea erakutsi (gehienez 10 minutukoa).*
- *Iritzi-trukea egin gelakideekin.*



Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](https://ahotsak.eus)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).

- *"Gaur egunera begira"*. Herriko eta bailarako GKEak ezagutzera bultzatuko ditugu ikasleak. Lehenengo, guztien artean egindako zerrenda osatu dezatela, eta ondoren taldetxo bakoitzak (2-3 ikasle) GKE bat aukeratu dezala. Egitekoa: GKE horri buruzko informazioa jaso, gero gelakideei azaltzeko. Aurkezpenean kontuan izan ditzaketen puntuak:



- GKEaren izena (logorik baldin badu, logoa erakutsi)
- Zer egiten dute GKE horretan?
- Zer esango zenuke jendea GKE horretan parte hartzera animatzeko?
- Ahal bada, GKE horren jardueren argazki bat lortu eta erakutsi
- Zuk bertan parte hartuko bazenu, zer egingo zenuke?



Irudia: [Zaporeak](#) GKEko kideak Lesbosen, errefuxiatuentzat janaria prestatzen.

Bidezko merkataritza zer den ere jorratu dezakegu, eta ikasleak jadanik antolatzen den azoka solidario batean parte hartzera bultzatu (herrian bertan ez bada, bailaran antolatuko da).



Irudian, Bermeoko gaztetxo batzuk bidezko merkataritzako azokako postuan. [Iturria](#)

- *"Bestearen azalean"*. Ipuin/istorio laburrak idaztea proposatzen dugu, lehenengo pertsonan idatziak, gero ozen irakurtzeko. Ipuin horietako protagonistak haurrak edo gaztetxoak izango dira, eta bizimodu ona izateko arazoak izango dituzte. Haien azalean jarriko dira ikasleak. Bakarka egin beharreko ariketa izango litzateke.

Adibideak:

- ✓ **Saharako haurra.** Tindufeko basamortuan jaio da, bere herrialdea okupatuta dagoelako. Uda pasatzera etorri da Euskal Herrira, baina oporrak amaitzen ari dira.
- ✓ **Haur euskalduna.** Familia behartsu batekoa. Gurasoak Elikagaien Bankura joaten dira, jatekoaren bila, eta lotsatu egiten da: ez du bere ikaskideek jakiterik nahi.
- ✓ **Gazte marokoarra.** Pateran iritsi zen. Kanean egiten du lo. Atxilotu egin dute, denda batean janaria lapurtzeagatik.

- ✓ **Etiopiako haurra.** Lehorteen ondorioz, herriko iturria agortu egin da. Egunero sei kilometro egin behar ditu ur bila joateko eta ezin du eskolara joan.
- ✓ **Ukrainako haurra.** Gerra hasi zenetik bi osaba galdu ditu. Errefuxiatu kanpaleku batera doa orain amarekin. Ez dakite aita eta amona non dauden.
- ✓ **Gazte beltzarana.** Euskal Herrian jaio zen, baina bere azalaren kolorearengatik jendeak pentsatzen du ez duela euskaraz jakingo. Dendetan arreta bereziz zaintzen dute, zerbait lapurtuko duen beldurrez edo.



[Iturria](#)

Idazlanak gehienez orrialde batekoak izango dira. Posible da ipuinak idazteko ohiko egitura erabiltzea (hasiera-korapiloa-amaiera), baina ez da ezinbestekoa. Egoeraren berri ematea ere posible da, amaiera zehatzik eman gabe.

Ozenki irakurri aurretik, komenigarria da entsegu batzuk egitea. Horretarako, Pako Eizagirreraren azalpenak kontuan izan ditzakegu, aditua baita lan horretan ([Aittu.eus](#) webgunearen sortzailea da): [Testua ezagutu eta barneratu](#) (00:30-01:40). Tonoa eta erritmoa erabaki beharko dute ikasleek, probak eginez: zer tonotan irakurri

(umorezkoa, serioa, lasaia...), pertsonaien ahotsak nolakoak izango diren (testuan pertsonaia bat baino gehiago agertzen baldin badira), non egin geldialdiak, zer hitz nabarmendu...

Istoria/ipuina ozen irakurriko dute, ikaskideen aurrean. Ahotsak grabatu egin daitezke (bideoan ere graba daiteke. Adibiderako, ikus: [Txirri, Mirri eta Txiribiton oporretan](#)).

- Izan dituzten sentipenen berri emango dute: Nola sentitu zara protagonistaren azalean? Gustura sentitu al zara ozenki irakurtzen? Eroso ala deseroso? Urduri ala lasai? Gozatzen ala bukatzeko irrikaz? Beldurrik piztu al zaizu (gaizki egitekoa, erridikulua egitekoa...)?
- Gustura geratu ez badira, hobeto prestatu eta berriz irakurri eta graba dezakete (adibidez, bakarrik egonda).
- Zer sentitu duzu beste batzuen istorioak/ipuinak entzutean? Hunkitu al zaituzte?

4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena egingo dute ikasleek.

### 3. *Gaia*: **Umorearen mugak** Bizikidetza

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/umorearen-mugak>

ahotsak IKASGELAN

Sarrera Honi buruz **Materiala** Euskalkitegia

## Umorearen mugak

Umorea egiteko garaian ba al dago mugarik? Goitik beherako umorea, behetik gorakoa... umoregile batzuek gai horri buruz hitz egiten dute bideo honetan.

Umorearen mugak

Mailak: LH

Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan

Ikasgaiak: Herritartasunerako Hezkuntza, Balio etikoak, Gaitasunak, Bizikidetza

★★★★★

0 puntu 5 izarreko maximotik

0 iritzi guztira

#### Bideoa ikusi aurretik

1. Aurrezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa umorearen mugei buruzkoa dela aipatuta:

- Zer da zuentzat umorea? Non egiten da? Nork egiten du?
- Zeri buruz egin daiteke umorea? Bota adibideak!
- Umorea egiteko garaian, ba al dago mugarik, pasa ezin daitekeen lerro gorririk?
- Antzerkigintzan zer baloratzen da gehiago, umorea ala drama?
- Umorea egitea ala drama egitea, zer da zailagoa? Barre eragitea ala negar eragitea?

2. Bideoan agertzen diren aktoreak nor diren aipatu daiteke, ea izenez ezagutzen dituzten: Ainara Ortega, Aitziber Garmendia, Bea Egizabal, Kepa Errasti eta Jon Plazaola.

### **Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### **Bideoa ikusi ondoren**

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Ezagutzen al zenituzten bideoan agertu diren aktoreak? Nondik?
- Aitziber Garmendiak eta Kepa Errastik diote ezinezkoa dela inor minduko ez duen umorea egitea. Zer iruditzen zaizue zuei?
- Aitziberrek ez dauka batere garbi umorearen mugak zein diren, zeri buruz ezin den umorerik egin... Eta zuek?
- Bea Egizabalek argi dauka umorea goitik beherakoa eta behetik gorakoa izan daitekeela. Zuen ustez, zein dago goian eta zein behean? Zeren arabera da? Adibideak jar ditzakegu (maila ekonomikoa, arraza, generoa, sexu-joera, ezaugarri fisikoak...).

- Egizabalek dio badagoela jendea kartzelan behetik gorako umorea egiteagatik. Zeri buruz ari da? Adibidez, Espainiako erregeari buruz egin al daiteke umorerik?
- Umore arrazista, umore matxista... aipatzen dira bideoan. Ezagutzen al duzue txiste matxista, arrazista edo homofoborik? Jar ditzagun adibideak, guztion artean, eta aztertu.
- Zer da "bullying"a? Zer ezaugarri dauzka?
- Zer diferentzia dago burla egitearen eta adarra jotzearen artean? Zer diferentzia dago norbaiten kontura barre egitearen eta norbaitekin barre egitearen artean?

Umorea egitean, giltzetako bat nork bere buruari barre egitea da. Geure buruaz ari garenean, zailagoa da (ez ezinezkoa) beste batzuk mintzea.

Umorea hiru multzotan banatzen dute adituek: umorezkoa, satirikoa eta ironikoa. Hona hemen umorearekin lotutako hitz batzuk: *barrea, dibertsioa, tontakeria, txiste, txantxa, adar-jotzea, grazia, ironia, satira, sarkasmoa* eta *zinismoa*. Esanahiei buruz hitz egin dezakegu. Zein dira positiboak?

Azken urteetan eta, bereziki, ikastetxeetan asko entzuten den hitz baten bueltan aritu gaitzake: "bullying"a edo eskola-jazarpena. Pertsona bati iseka egitea edo burla egitea izango litzateke, bereziki haren izaera, jokabide, erreakzio eta ekintzekin lotuta, modu errepikakorrean eta pertsona hori mespretxatzeko, gutxiesteko edo beraz barre egiteko asmoarekin. "Bullying"ak ez dauka zerikusirik umorearekin, baina askotan umorea iseka egiteko aitzakia moduan erabiltzen da: txantxak direla esaten da.

Iseka egitearen eta adarra jotzearen arteko aldeak argi izateko, taula hau erabil daiteke:

<b>BULLYING-A</b>	<b>ADARRA JOTZEA edo TXANTXAK EGITEA</b>
✓ Edozein tokitan gerta daiteke	✓ Bereziki lagunartean gertatzen da
✓ Min emateko intentzioa dago	✓ Ez dago mintzeko intentziorik, jolasa da helburua
✓ Taldean egiten da, min handiagoa emateko	✓ Taldean egin daiteke ala ez
✓ Boterea dutenak, besteengan eragina dutenak, daude taldean	✓ Berdintasuna dago kideen artean
✓ Errepikatu egiten da	✓ Ez da errepikatzen
✓ Intimidazioa gertatzen da: erasotzak ez dauka hitzik	✓ Errespetua dago: geratzeko eskatuz gero, geratu egiten dira



[Iturria](#)

- 3. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordeztu bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.



- *"Besteen azalean"*. Baztertuen antzerkiko teknika erabiliko dugu, bost pertsonako talde txikitan antzezlan laburrak prestatzeko. Eskola-jazarpena (Bullying) izan daiteke gaia edo beste edozein bazterketa. Ez dago atrezzo beharrik, eta ezta interpretazio-araurik ere (nola mugitu, zer keinu egin...). Altu eta garbi hitz eginda nahikoa da, ulergarria gerta dadin. Ariketa honen helburua ez da artistikoa, emozionala baizik: baztertuekiko enpatia sentitzea, haien lekuan jarrita.

Protagonista baztertutako pertsona bat izango da kasu guztietan (hainbat izan daitezke arrazoiak: generoa, ezaugarri fisikoak, izaera, jatorria, maila ekonomikoa...). Baztertzen duten bi etsai izango ditu eta lagundu diezaioketen beste bi pertsona ere egongo dira. Bi aldiz antzeztu beharko da: egoera bera bi modutan.

#### 15 minutuan

- Egoera bat asmatu, gatazka bat
- Pertsonaiak pentsatu
- Pertsonaia bakoitzak izango duen jarrera pentsatu
- Pertsonaien arteko harremanak zehaztu
- Protagonistarentzat txarra den bukaera bat pentsatu

#### 5 minutuan

- Aurrez pentsatutakoa taularatu, inprobisatuz

#### 5-10 minutuan

- Publikoak bukaerari buruz hitz egingo du
- Denen artean bukaera on bat pentsatuko dute
- Pertsonaia bakoitzak zer egin/esan behar du hori gerta dadin?

#### 5 minutuan

- Antzezleek bukaera berria duen antzezlana taularatuko dute, inprobisatuz

Adibide bat:

- **Lehenengo antzezpena.** Ikaskide bati 'tximu' deitzen diote, txikia eta iletsua delako. Inguratzen den bakoitzean, gelako bik burla egiten diote eta tximu-soinuak egiten hasten dira. Beste bi gelakidek ez diote burlarik egiten; "ez pasatu" bezalako esaldiak esan ditzakete, baina ez dute ezer egiten egoera hori eragozteko. Protagonista bakarrik eta zapuztuta geratzen da, lur jota.

- **Bigarren antzepeña.** Ikaskide bati 'tximu' deitzen diote, txikia eta iletsua delako. Inguratzen den bakoitzean, gelako bik burla egiten diote eta tximu soinuak egiten hasten dira. Beste bi gelakidek kontra egiten diete, eta bakean uzteko esaten diete. "Txantxetan ari ginen...". "Ba ez dauka graziarik!". Protagonistari animoak ematen dizkiote: "Ez egin kasurik. Haiek bai direla tximuak!".



[Iturria](#)

Talde bakoitzak 15-20 minutu beharko dituela kontuan izanda, ariketa hau egiteko beharko den denbora kalkulatu daiteke. Bi-hiru saiotan egin daiteke, ikasle guztiak parte hartu dezaten.

- *"Sormena lagun"*. Umorezko bakarrizketa laburrak prestatu eta taularatuko ditugu. Kasu honetan, antzezteko erak garrantzia izango du eta baita gidoiak ere. Binaka prestatu ditzakete, hala ideia eta pasadizo barregarri gehiago bururatzeko. Pasadizoak edo anekdotak benetan gertatutakoak zein asmatutakoak izan daitezke, baina norberari gertatutakoak balira bezala kontatuko dira. Pertsonaiak norberaren antza izan dezake edo erabat asmatua izan daiteke. 5 minutuko antzezlanak izango dira, laburrak.

- 1- Gai bat edo anekdota bat aukeratu
- 2- Gidoia idatzi:
  - Pertsonaia pentsatu
  - Ideia nagusiak, puntu nagusiak, pentsatu (gero ez dago hitzez hitz esan beharrik, inprobisatu egin daiteke)
  - Hasiera bat eta bukaera bat pentsatu
- 3- Entsegu pare bat egin, konfiantza hartzeko
- 4- Ikaskideen aurrean antzeztu

### **KONTUAN IZAN!**


*Ez hitz egin oso azkar*

*Argi hitz egin, ez ahopean*

*Begiratu publikoari!*

*Ez egon geldi: egin keinuak (triste, pozik, haserre...), mugitu eskuak, hartu espazioa...*

*Kontrolatu denbora: ez izan presarik, baina ez jardun hitz eta pitz pentsatu gabe*



Antzezpen guztiak egun bakarrean egin daitezke, elkarren segidan. Nola sentitu diren galdetuko zaie, eta balio handiagoa emango zaio horri ondo antzetzeari baino. Ondo egindakoak nabarmenduko dira.

Posible da grabatzea, gero ikusi eta aztertu ahal izateko; hala, hurrengo baterako ikasten jarraitzeko aukera izango dute (euren buruak ebalua ditzakete).




"Más que risas" bideoetako fotogramak, [Iturria](#)

- *"Eman iritzia."* Ikasle bakoitzak euskarazko umorezko bakarrizketa edo esketx bat aukeratuko du, bere gustukoa dena, eta ikaskideei erakutsiko die. Aukeraketa ETB1eko *Barre libre*a telesaioko umorezko bakarrizketa laburren artean egitea proposatzen dugu: [hemen](#) 250 bideo baino gehiago daude.



Aukeratutako bideoari buruzko aurkezpena egingo dute:



4. **Ekoizpena partekatzea.** Ahozko aurkezpena edo antzezpena egingo dute ikasleek.

4. *Gaia:* **Gure planeta krisian** Garapen jasangarria

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/gure-planeta-krisian>

The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there are navigation tabs: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Gure planeta krisian'. Below the heading, there is a short text introduction: 'Bideo honetan gure planetaren krisi klimatikoaren jatorriaz hitz egiten da. Gehiegizko kontsumoak planeta kutsatzera garamatza, CO2 isurtzen dugulako. Zer egin daiteke egoera konpontzeko?'. A video player is embedded, showing a man speaking. To the right of the video, there is a task sheet with the following details: 'Mailak: LH', 'Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan', 'Ikasgaiak: Balio etikoak', and 'Gaiak: Ingurumena, Bizikidetzatza'. At the bottom of the task sheet, there are two checkboxes: '0 puntu 5 izarreko maximotoik' and '0 iritzi guztira'.

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Bideoa planetaren krisiari buruzkoa dela aipatu. Ikasleen aurrezagutzak aktibatu, talde handian gisa honetako galderak eginez:

- *Gure planeta krisian dago. Zer gertatzen zaio?*
- *Noiztik eta zergatik gertatu da larrialdi klimatikoa? Zer ezaugarri ditu?*
- *Atmosferara CO2 isurtzea kaltegarria da. Zuen ustez, zenbat kilo CO2 isurtzen du urtean gutako bakoitzak?*
- *Non kokatuko zenuke zeure burua: aberatsa, klase ertainekoa (langile-klasea) ala pobrea? Zergatik?*
- *Industrializazioak bizimodu-aldaketa handia ekarri zuen: hazkunde ekonomikoa, erosteko ahalmena, ongizatearen gizartea... Zerrendatu industrializazioak ekarritako gauza onak eta txarrak.*

2. Larrialdi klimatikoarekin lotutako irudi batzuk ikusi eta komentatu daitezke. Adibidez:



Argazkietan, lehortea eta Poloetako urtze-prozesua.

### **Bideoa ikusi bitartean**

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentziora eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu ditzatela.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### **Bideoa ikusi ondoren**

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.

2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Urte gutxi behar izan ditugu planeta hondatzeko. Egunerokoa jabetzen al gara gure kontsumo-ereduek dakartzaten kalteez (gehienak munduko beste leku batzuetan gertatuta)?
- Zer sentitzen duzu aberatsa zarela entzunda? Zure herriko pobreena ere ez dela pobrea, munduko beste toki batzuetako jendearekin konparatuta?
- Denok bizi nahi dugu ondo. Herrialde "azpigaratuetan" ere gero eta gehiago kontsumitzen eta kutsatzen dute. Zer iruditzen zaizue haiei guk egiten duguna ez egiteko esatea? Hipokrisia?
- Bideoan diotenez, gutako bakoitzak batez beste 8 tona inguru CO<sub>2</sub> isurtzen ditu urtean (autoa, berogailua, argindarra, aparatu elektronikoak, arropa, bidaiak...) eta ez dugu kutsadura jaisteko benetako neurririk hartzen. Zer egin beharko genuke aldaketa eraginkorra izan dadin?
- Zer gertatuko da, adibidez, petrolio agortzen baldin bada?
- Argi dago egin behar dena zer den: gutxiago kontsumitu eta gutxiago kutsatu. Baina nola? Zerrendatu zuen kasuan egin dezakezuen (adibidez, gutxiago erosi, Internet bidez ez erosi, garraio publikoa erabili, birziklatu, berogailua eta argia ahal den gutxien piztu, ura ez alferrik galdu, ingurukoak kontzientziatu...). Prest al zaudete zerrendatutako guztia betetzeko konpromisoa hartzeko?





ziren ikertu eta komentatu daiteke. Hona hemen Glasgowko 2021eko bilerari buruzko [artikulu bat](#). Klima aldaketari buruzko artikulu zabala [Wikipedian](#).

**5. Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezkotako bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin ditzakete.

- *"Jolasten"*. Eskulanak egitea proposatzen dugu, zaborretara botatzen ditugun objektuak berrerabiliz. Etxe bakoitzean sortzen dugun zabor kopurua zenbatekoa eta nolakoa den konturatzeko balioko du, eta sormena lantzeko ere bai.

Batez ere plastikoa erabiliko dugu, baina zaborretatik ateratako edozer erabil daiteke (itsasbazterrean edo errekan aurkitutakoa ere izan daiteke): egurra, kartoia, metala... Posible da taberna batean edo denda batean zaborretara botatzen dutena eskatzea (adibidez, tapoiak, txapak edo botila kortxoak).

Egingo ditugun eskulanak erabilgarriak izatea ere inportantea izango da, bestela zaborretara botako ditugulako berriro. Adibidez, lata handiekin loreontziak egin daitezke, kartoiarekin lanparak, aldizkariak saskiak, plastikozko ontziei erabilera berriak eman... Norberak erabiltzeko edo oparitzeko izan daitezke.

Hona hemen ideia batzuk:

**Botilen kortxoekin egindako eskulanak.** Hiru marran ("tres en raya") jolasa, giltzatak... egiteko behar diren materialak: kortxoak, koloretako pinturak, errotuladore beltzak, berniza eta zirrindola txikiak (giltzatakentzat).





Iturria

**A.-** Hiri batzuetan auto zaharrak erretiratzeko plangintza jarri dute abian, asko kutsatzen dutelako. Hirietan bizi direnek, beraz, auto berriak erosi beharko dituzte. Neurri horrek kritikak ere eragin ditu: zer kontsumo-eredu bultzatzen du neurri horrek? Eta zenbat kutsatzen du auto berri horiek guztiak ekoizteak? Auto gutxiago egotea bultzatu beharko litzatekeela diote. Batzuk neurri horren alde egongo dira eta besteak kontra.



Iturria

**B.-** 2030erako CO2 isuriak % 20 murriztea da Eusko Jaurlaritzaren helburua, baina beste helburu batzuk ere baditu, besteak beste: bizi-itzaropena luzatzea eta jaiotza-tasa igotzea. "Antinatalistek" munduan pertsona gehiegi bizi garela diote, ez dagoela guztiondako adina baliabide: nola murriztuko ditugu isuriak gero eta gehiago baldin bagara? Batzuk "antinatalistak" izango dira eta besteak ez.



Iturria

**C.-** Gutxiago kontsumitzeko -eta, horrenbestez, gutxiago kutsatzeko- gasa eta gasolina garestitzea proposatzen dute batzuek. Neurria drastikoa da, baina neurri gogorrik hartu ezean ez omen da aldaketa nabarmenik lortuko. Batzuk neurri horren alde egongo dira eta besteak kontra.



Iturria

**D.-** Garai batean, etxe bakoitzean pertsona gehiago bizi ziren (adibidez, normala zen gurasoen etxera ezkontzea). Orain gero eta pertsona gutxiago bizi gara etxebizitza bakoitzean. Jabetzaren aldeko joera ere nabarmena da. Etxebizitza bakoitzak kontsumitzen eta kutsatzen duena kontuan izanda, batzuek diote ez dela jasangarria pertsona guztiok etxebizitza bana izatea. Etxebizitza eskubidea beste era batera planteatu behar dela diote: eredu komunitarioak, esate baterako. Batzuk ados egongo dira eta beste batzuk ez.


Hasi aurretik, eztabaidatzeko garaian kontuan hartu beharreko irizpideak jorratu ditzakegu (adibidez, [baliabideak](#)). Nork bere iritzia defendatzeko argudioak garatzea eta gainerakoen iritzia ulertu eta errespetatzea dira helburuak, eta ez norberak arrazoia izatea.

Talde bakoitzean bi azpitalde osatuko dira (erdi eta erdi, **A** eta **B**: aldekoak eta kontrakoak) eta moderatzaile bat ere izendatuko da, bati eta

besteari hitza emateko. Eztabaida guztiak ez dira aldi berean izango, txandaka baizik; hala, beste taldeetako ikasleak publikoa izango dira, telebista-programa batean bezalaxe. Posible izango da uneren batean publikotik galderak egitea eta parte hartzea ere (adibidez, taldetxoren batean zer esan ez dakitela geratzen baldin badira, laguntzeko), baina moderatzaileak aukera emandakoan bakarrik (bestela, guztizko isiltasuna eskatuko zaio publikoari).

- *“Mundu zabalean”*. Mundura begira jarriko gara, beste toki batzuetan zer gertatzen den jakiteko eta larrialdi klimatikoaren gaia bere osotasunean ulertzeko.

Lehenengo eta behin, iker dezagun zein diren hondamendi klimatikoak pairatzeko aukera gehien duten herrialdeak. Munduko mapa batean jar ditzakegu. Herrialde batzuetan hobeto daude prestatuta beste batzuetan baino (adibidez, AEBn eta Australian), eta horrek kalteak txikiagoak izatea dakar; [artikulu hau](#) herrialde zaugarrienei buruzkoa da eta baita [beste hau](#) ere.



Ondoren, azken urteotan munduko toki desberdinetan gertatu diren hondamendi naturalak -uholdeak, suteak, urakanak...- eta haien ondorioak azter ditzakegu, talde txikitan banatuta. Adibidez:

- **Australia.** Berotze-efektuak ekarritako lehortearen ondorioz, 2019-2020 urteetan sute handiak izan ziren.
- **Etiopia.** Lehorte izugarria da. Euririk ez du egin azken urteetan.
- **Nigeria.** 2022an uholde handiak izan ziren.
- **Bangladesh.** Urpean geratzen ari da, itsas maila igotzen ari delako.

Taldetxo edo bikote bakoitzak ahoz aurkeztuko du jasotako informazioa gelakideen aurrean. Hona hemen kontuan izan ditzaketen puntu batzuk:

- Herrialdea
- Non dago?
- Hondamendiari buruzko azalpenak (data, arrazoiak, ondorioak...)
- Argazkiak erakutsi

Aurkezpenen ostean, aproposa litzateke ikasleei euren sentipenak adierazteko tarte bat eskaintzea:

- *Edukiari dagokionez*. Zer sentitu duzu beste toki batzuetako errealitate gordina ikertzen? Eta ikaskideen aurkezpenak entzuten eta argazkiak ikusten?
- *Aurkezpenari buruz*. Gustura sentitu al zara? Eroso ala deseroso? Urdur ala lasai?



Argazkia: Uholdeak Pakistanen 2022an. Iturria: Fida HUSSAIN / AFP

## 6. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpena edo saioa egingo dute ikasleek.

5. *Gaia*: **Bost emakume bertsolari: XIX-XX** Genero-berdintasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumeak-bertsolaritzan-xix-xx>



The screenshot shows the 'ahotsak IKASGELAN' website interface. At the top, there are navigation tabs: 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Bost emakume bertsolari XIX-XX'. Below this, a short text describes the video content: 'XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran baziren bertsotan egiten zuten emakumeak, baina pixkanaka desagertzen joan ziren. Bost emakumeren adibideak jaso ditugu bideo honetan: Joxepa Antonia Aranberri "Xenpelar", Joxepa Matea Zubeldia, Placida Otaño eta Mikaela eta Joxepa Iñaxi Elizegi.'

The video player shows a woman speaking. To the right of the video is a metadata box with the following information:

- Mailak:** LH
- Proiektuak:** EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan
- Ikasgaiak:** Balio etikoak
- Gaia:** Genero-berdintasuna

Below the metadata box, there is a star rating system with five stars, and two statistics: '0 puntu 5 izarreko maximotik' and '0 iritzi guztira'.

**Bideoa ikusi aurretik**

Aurrezagutzak aktibatzeko, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa sasoi bateko emakume bertsolariei buruz dela esanda:

- Ba al zegoen bertsolaririk XIX. mendearen amaieran eta XX. mende hasieran? Baldin bazegoen, gizonetzkoak ala emakumezkoak izango ziren?
- Iparragirre, Txirrita, Xenpelar... ezagunak egiten al zaizkizue? Esan sasoi hartako emakume bertsolari batzuen izenak.
- Nola irudikatzen duzu bertsolari bat XIX. mendean? Nola ikasten zuten bertsotan? Non kantatzen zuten?
- Orduko bertsolariek jakingo al zuten idazten eta irakurtzen? Ikasketarik izango al zuten? Zer klase ekonomikoko familia izango zuten?
- Nolakoa zen emakumearen bizimodua (aisialdia, adibidez) garai hartan? Zer pisu izango zuen erlijioak euren bizitzetan?


### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Bideoan bost emakume bertsolari aipatzen dira. Ezagutzen al zenituzten?
- Gehienak gizonezko bertsolari ezagunen familiakoak dira eta Aita Zabalak egindako bertso bilketari esker daukagu haien berri. Zuen ustez, sasoi hartan uste duguna baino ohikoagoa izango al zen emakumeek bertsoan egitea?
- 'Plaza'ren kontzeptua aldatu egin da. Gaur egun, non egiten da bertsoan (bertso-saioak, txapelketak, bertso-afariak, bertso-poteoak...)? Eta nolakoa zen garai bateko "plaza" (iturria, auzoa, plaza, etxe-ataria, sagardotegia, taberna...)?
- Emakumeak jendaurrean kantatzea gaizki ikusita zegoen XIX. mende bukaeran, besteak beste, Elizaren eraginez. Bideoan zein dira egoera horren zantzuak? (Zubeldiaren alabak lotsatu egiten ziren amaren jokabidearekin. Placida Otañori "gallarda airosa" zela esan zioten, lotsagabea).
- Hala ere, bideoan emakumeak ez ziren etxe-txokoan kantatzera mugatu (Xenpelarrek lantegian kantatu zuten, Zubeldiak etxeo balkoitik eta plazan mahai gainera igota, Iñaxi Elizegik sagardotegian eta Placida Otañok Txirritari erantzun zion). Zuen ustez, ausardia berezia al zuten? Ala naturaltasunez egiten zuten?



Emakume bertsolari guztiak beltzez jantzita eta tapa-tapa eginda ageri dira argazkietan, serio-serio. Batek gurutzea darama lepotik zintzilik. Horri buruzko hausnarketak egin daitezke.



Argazkian, Txirrita eta Gaztelu bertsolariak ageri dira. [Iturria](#)



3. XX. mendean ezagutu dugun bertsolaritza eredu maskulinoetan oinarritu da. Mende hasieran, bertsolari izatea alferkeriarekin eta mozkorkeriarekin lotzen zen eta gizonezko bertsolariak ere ez zuten ospe onik. Emakumeek, berriz, eremu pribatuan kantatu behar izaten zuten. Sagardotegietan eta tabernetan batik bat gizonezkoek kantatzen zuten. Bertso-txapelketetan eta bertso-saioetan ere bertsolariak gizonezkoak izaten ziren. Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidi izan ziren bertso-txapelketetan parte hartu zuten lehen bi emakumezkoak, 80ko hamarkadan.

Horregatik, irudipena izan dezakegu beti horrela izan dela, baina dokumentuek kontrakoa erakusten dute: alegia, garai batean ohikoa zela emakumeek bertsotan egitea. Gainera, emakumeak aurretik ere egon ziren oholza gainean: Lore Jokoetako bertso-lehiaketetan hartu zuten parte XIX. mende bukaeran.

Gaian sakontzeko, bertsolaritzari buruzko beste hiru bideo hauek ere ikus daitezke, eta komentatu:



- [Emakume bertsolariak XV-XIX.](#) Bideo honetan kontatzen da emakumeek bertsotan egitea ohikoa zela eta hori zergatik joan zen aldatzen.
  - [Bertsolaritzaren bilakaera \(XX\).](#) Bertsolaritza oso maskulinizatua egon zen bideoan azaltzen den garaian eta, gainera, bideoan historia gizonezkoen ikuspegitik kontatua dago.
  - [Emakumeak bertsoen plazan.](#) Gaur egun bertsotan dabilzan hainbat emakumeren testigantzak: emakume izateak nola baldintzatu duen euren bertso-ibilbidea.
4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezkotzat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin dezakete.
- *"Historia egiten"*. Sasoi bateko emakume bertsolariak ikertzen jarraitzea da proposamena. Bideoan aipatutako emakumeak ez dira bakarrak, ezta gutxiago ere. Gainera, posible da bideoan agertzen direnei buruz datu interesgarri gehiago aurkitzea ere.



Hona hemen XIX. mendean Lore Jokoetan parte hartu zuten emakumeen izenetako batzuk: Dominika Hiribarren, Hondarribiko Joxepa, Marieder Uthurralt, Dominika Goyhetche, [Mari Luixa Erdozio](#), [Aña Etxegarai](#) 'Aña debrua', Marie Hargain... ([artikulu honetan](#) ere aipatzen dira Hargain eta Etxegarai. Apaizen begiradapean kantatzen omen zuten. [Elkarrizketa interesgarria](#) egin zieten 1896an). Erdoziok eta Etxegaraik bat-bateko bertso lehiaketa batzuk irabazi zituzten.

Aña Etxegarai. Iturria: [BDB](#)

Patxi Etxeberria bertsolariak Aginagako Mikela Ignazia Gaztelu aipatzen du [pasarte honetan](#), anaiekin etxean kantatzen zuen beste bertsolari bat.

Jendaurreko ikuskizuna ohiko bizibidea zen garai batean itsuen artean. "Asteasuko itsuek" bertsoa zuten diru-iturri: bertso sortak sortu, kalean kantatu eta bertsopaperak saltzen zituzten. Bi lehengusu, biak itsuak, ziren hala ibiltzen zirenak, euren emazteekin: Asteasuko [Jazinta Arruti](#) eta Elgoibarko Juana Manuela Irusta. Plazan, jendaurrean, sekulakoak eta bi esaten zizkioten elkarri senar-emazteok, bertsotan. Eta, ondoren, bertso horiek inprimatuta saltzen zituzten.



[Iturria](#)

Talde txikitan banatuta, talde bakoitzak emakume bati buruzko ikerketa egitea proposatzen dugu. Horretarako, zerrenda bat egin daiteke lehenengo, eta, ondoren, aukeraketa, denek pertsona bera ez aukeratzeko. Laguntza pixka bat: [Orainmenean](#) liburua eta [Bertsoikasgela](#)ko eta [EKE](#)ko artikulua.

**Proposamena:** Sasoi bateko emakume bertsolarien ahalik eta argazki zein informazio gehien lortzea. Izen berriak lortuta, zerrenda osatzen joatea.

Talde bakoitzak egindako lanaren aurkezpena egingo du, ahoz, gelakideen aurrean. 5-10 minutuko aurkezpen laburrak izango dira. Puntu hauek izan ditzakete kontuan:

- *Izen-abizenak*
- *Jaiotza- eta heriotza-datak*
- *Ba al dago argazkirik?*
- *Nongoa zen?*
- *Biografia laburra*
- *Zer nabarmenduko zenuke?*

Bukatutakoan, posible da lortutako informazioarekin panel bat osatzea guztien artean.

- *"Sormena lagun"*. Koplak sortuko ditugu. Koplak normalean laburrak izaten dira, bi puntukoak.

Kopla txiki herrikoi batzuen adibideak:

8 silaba.....	Mendi altuen <b>edurre</b>
8 silaba.....	bota sutera <b>egurre</b>
8 .....	alaba galanten amak
8 .....	mutil zantarren <b>bildurre</b>
7 silaba.....	Jose txo Olaberriko
6 silaba.....	zer dezu <b>negarrez?</b>
7 .....	Amak tabernarako
6 .....	dirurik <b>eman ez.</b>

Kopla sortuko ditugu, gustuko doinuren bat aukeratu ostean (hemen adibide batzuk: [Ezagutzen ez bagaitu](#), [Leku izenak asmatzen](#), [Parrandako kontuak](#), [Puntuka librean](#), [Euskaldun berria eta zaharra](#)... gehiago [hemen](#)).

Posible da kopla zaharren bertsioak egitea eta baita kopla edo bertso berriak hutsetik sortzea ere. Gai librean sortuko dituzte kopla. Binaka egin daiteke, gero kantatzeko joko handiagoa ematen duelako. Aukera bat: kopla bideoan edo audioan grabatzea, gero berriro entzun eta ikusi ahal izateko.

- *"Bestearen azalean"*. Bertsotan egiteagatik kritikatuak izan ziren emakumeen azalean jarriko dira ikasleak, eta 5-10 minutuko antzezlan laburrak sortuko dituzte. Gela talde handietan banatuko da (5-8 ikasle) eta talde bakoitzak istorio bat sortu, idatzi eta antzeztuko du.

Istorioak benetako pertsonaiekin oinarrituta egon daitezke edo asmatu egin ditzakete. Benetako pertsonaien adibideak:

- **Joxepa Matea Zubeldia** hernaniarra. Bere alabek erre egin zituzten haren koadernoak, amaz lotsatu egiten zirelako.
- [Martxelina Lopetegui](#) oiartzuarra. Txirritak eta beste batzuek xaxatu egiten zuten, ezkontza-kontuekin. Ezkonduz geroztik ez zen gehiago bertsotan aritu.

- [Placida Otaño](#) zizurkildarra. Bertsoan egiten zuelako lotsagabea zela esaten zioten.

Hurrengo puntuak jorratu daitezke:

- Istorioa pentsatu: hasiera, korapiloa eta amaiera. Anekdota soil bat ere izan daiteke.
- Pertsonaiak asmatu: bakoitzaren ezaugarriak eta jarrerak.
- Gidoia: eszenak eta pertsonaien arteko elkarrizketak. Ez dago hitzez hitz ikasi beharrik, inprobisatu egin daiteke, baina komeni da egitura bat izatea.
- Eszenografia eta jantziak, modu oso sinplean izan arren (adibidez, zapia edo kapela buruan).

Antzezlanean bertsoak baldin badaude, kopiak publikoaren artean banatu daitezke, denek batera kantatu ahal izateko.

Inportantea izan daiteke sentimenduei buruz hitz egitea: batetik, ea nola sentitu diren antzezlanaren sortzen eta antzeztzen, eta, bestetik, protagonistari buruz sentitzen dutena: ea enpatiarik sentitzen duten, ea irudikatzen ote duten egoera horretan beraiek zer egingo luketen...

Antzezlanak grabatu egin daitezke, eta ikastetxeko webgunera igo edo sare sozialen bidez parteka daitezke.



Bergarako bi gaztetxo, Jardun Ekarteak antolatutako antzerki eskolakoak, antzeztzen.

Iturria: [Goiena](#)

## 5. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpenak eta emanaldiak.

6. *Gaia*: **Gona oholtza gainera** Genero-berdintasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/80ko-hamarkadako-emakume-bertsolariak>



The screenshot shows the website 'ahotsak IKASGELAN' with a navigation bar containing 'Sarrera', 'Honi buruz', 'Materiala', and 'Euskalkitegia'. The main heading is 'Gona oholtza gainera'. Below it, a text block reads: 'Emakumea bertso-plazatik desagertuta egon zen, Lore Jokoez geroztik. 80ko hamarkadan hasi ziren lehenengo emakumeak berriro oholtzara igotzen: Kristina Mardarasek eta Arantzazu Loidik beraien esperientzia kontatzen dute bideo honetan.' Below the text is a video player showing a woman in a red jacket. To the right of the video is a metadata box with the following information: 'Mailak: LH', 'Proiektuak: EIMA 2.0. Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan', 'Ikasgaiak: Balio etikoak', 'Gaiak: Genero-berdintasuna, Bertsolaritza'. At the bottom of the video player, it says 'Ikusi hemen: YouTube'.

**Bideoa ikusi aurretik**

1. Gaiaren aurkezpena egin: 80ko hamarkadan oholtza gainera igo ziren lehenengo emakumeak. Ikasleen aurrezagutzak aktibatu, gisa honetako galderak eginez talde handian:

- Nortzuk dira zuen gustuko bertsolariak? Bota izenak.
- Gero eta neska gehiago dabilta bertsolaritzan. Egin dezagun zerrenda bat ezagutzen ditugun emakume bertsolariekin.
- 80ko hamarkadan sortu ziren gaur egun ezagutzen ditugun bertso lehiaketak: eskolartekoa, Bertso Txapelketa Nagusia... eta baita lehenengo bertso-eskolak ere. Ba al dakizue nortzuk izan ziren lehenengo emakumeak bertso lehiaketa horietan parte hartzen? Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidi izenak ezagunak egiten al zaizkizue?
- Zuen ustez, zer zailtasun izango zituzten lehenengo emakume bertsolari haiek?

2. Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidiri buruzko zertzelada txiki batzuk eman daitezke, bideo ikusi aurretik.

*Kristina Mardaras* (Iurreta, 1948). Senarrarekin batera hasi zen Durangoko ikastolako bertso-  
eskolan, 1979 urte inguruan. Plazan lehendabiziko  
aldiz 1983an kantatu zuen auzoko (Oromiñoko)  
jaietan. Euskal Herriko I. Bertsolari Txapelketa  
Nagusian parte hartu zuen lehen emakumea izan  
zen, 1985ean.



*Arantzazu Loidi* (Aretxabaleta, 1967). Oholtzara  
igo zen lehenengotako neska izan zen 80ko  
hamarkadan. Euskal Herriko lehenengo bertso-  
eskolako ikasleetako bat zen, Almen ikastolaren  
bueltan sortu zena 1974an. Bertso-  
eskolan neska  
gehiago ibili baziren ere, txapelketetan eta bertso-  
saioretan parte hartzeko garaia iritsi zenean, bera  
zen neska bakarra. 1985ean eskolarteko bertso  
txapelketa irabazi zuen.

### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu, ea aurrez hitz egindakoarekin bat datozen.
2. Atentzioa eman dieten pasarteak gogoan hartu. Ezagutzen ez dituzten hitzak, izenak edo erreferentziak apuntatu ditzatela.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Zer iruditu zaizue bideoa? Zerbaitek harritu al zaituzte? Zer nabarmenduko zenukete?
- Arantzazu umetan hasi zen bertsoan bere adinekoekin. Kristina, berriz, 30 urtetik gora zituenean, bere senarrarekin batera, bertso-eskolan; Justo Alberdi senarrak eta biek hartu zuten parte txapelketan. Datu hori lagungarria al da bien jarrerak ulertzeko?
- Bi bertsolarien esanak eta jarrerak konparatu ditzakegu, eta komentatu:
  - 1-Kristina Mardarasek dio emakumearen presentzia bermatzeko jardun zuela bertsoan, horren beharra ikusten zuelako. "Emakumeen ordezkari" sentitzen zen. Arantzazu Loidi, ordea, ez: txapelketetan hasi arte ez zen konturatu neska izatea arraroa zenik.
  - 2-Arantzazu oso modu diskretuan janzten zen: ez zuen nabarmendu nahi. Kristinak, berriz, emakumea zela nabarmendu nahi izaten zuen, gona jantzita.
  - 3-Kristinak pozez kontatzen du bere maila apala izan arren txapeldunen pare txalotzen zutela. Arantzaurentzat, ordea, ondo egitea oso inportantea zen.
  - 4-Neska izateagatik eta kopuruak berdintzeko deitzen zieten emakume bertsolariei, bertsoan onak izan ala ez. Arantzazuk gaizki zeraman hori; Kristinak, berriz, ez.



- Gaur egun nolakoak dira emakume bertsolarien janzkerak eta jarrerak?
- Zer iruditzen zaizue Arantzazuri kazetariak Eskolarteko txapelketan esan ziona: "Ez duzu irabaziko, baina neska bakarra zarela elkarriketatuko zaitut"? Zer beste esaldi ezkututzen dira esaldi horren atzean ("Neskek ezin dute bertsotan ondo egin", "Ez duzu merezi, baina mesedea egingo dizut"...)?

Emakume bertsolari gehiago plazaratu zirenean, Kristina erretiratu egin zen. Arantzazuri, berriz, beti onena ematearen presioa pisutsuegi egin zitzaion eta urte batzuen buruan hark ere uztea erabaki zuen. Ahotsak.eus-en egindako [elkarrizketan](#) azaltzen ditu arrazoiak.



Bideoan Oihane Perea bertsolari gasteiztarra aipatzen da. Hona hemen hark Ahotsak-erako egindako [elkarrizketan](#) dioena: "Egia da ba ama izan eta gero plazan segitzen lehenengoa izan nintzela, nere mailan, eta ez ere eliteko bertsolari baten erritmoan, baino bueno... ama izan eta gero egin genuen bertso kabareta... bi urte zituen nere haurrak eta 69 saio egin genitun urtebetean". Kristinaren antzera, emakumeen ordezkari sentitzen zen Oihane ere: "Baneukan bultzada hori: 'Ez dala inor... ba egingo dut!'. Bulkada hori bai izan dut, eta ba hor, klaro, eredu bat ere eman diet besteei, ez? 'Txe, txe, hemen karrotik jeistea ez dago permitituta! ' jeje".

3. Gaur egungo emakume bertsolariek izan ditzaketen mugak ezagutzeko, bideo hau ikustea eta komentatzea ere proposatzen dugu: [Emakumeak bertsoen plazan](#). Uxue Alberdi idazle eta bertsolariak idatzitako *Kontrako eztarritik* (Susa, 2019) saiakera-liburua ([hemen](#) osorik) ere interesgarria gerta daiteke.

Gaur egun badirudi harrobia sendo dagoela (kontuan izan behar den arren eskolartekoetan gailentzen direnek ez dutela beti bertsoetan jarraitzen). Azken urteotako albisteei errebaso txiki bat emanez:

- Haira Aizpurua txapeldun Euskal Herriko Eskolarteko bertso txapelketan ([2023](#) eta [2024](#)).
- [Kelmene Abaitua txapeldun Bizkaiko eskolarteko bertso txapelketan](#) (2024).
- [Irantzu Idoate Hernandorena sariketan txapeldun](#) (2024).
- June Aiestaran Gipuzkoako Eskolartekoan txapeldun ([2024](#) eta [2023](#)).
- [Aroa Arrizubieta Arabako Txapelketan garaile](#) ([2024](#)).
- [Nerea Ibarzabal Bizkaiko txapelduna](#) (2023).
- [Haizea Telleria garaile Bizkaiko Eskolarteko txapelketan](#) (2023).
- [Maddi Agirre Arabako eskolarteko txapelketan irabazle](#) (2023).
- [Kattin Madariaga Nafarroako eskolarteko txapeldun](#) (2023).
- [Saioa Alkaiza Nafarroako txapeldun](#) (2021).




Argazkia: Gazte Xilabako 2024ko finaleko irudia. Erdian, Haira Aizpurua txapelduna.  
Iturria: [bertsozale.eus](http://bertsozale.eus)

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek horietako bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo proposamen bat baino gehiago ere egin ditzakete.

- *"Gaur egunera begira".* Gaur egun asko dira emakume bertsolariak. Ikasle/bikote bakoitzak bat aukeratuko du eta hari buruzko aurkezpen txiki bat prestatuko du. Ariketa honen helburua 50 urtean berdintasunean zenbat aurreratu den konturatzea da.

Kronologikoki egin daiteke, helduenetatik gazteenetara, 80ko hamarkadatik hona plazaratzen joan diren emakume bertsolariak bistartzeko eta haien ibilbideak aintzat hartzeko. Laguntza txiki bat: [Wikipediako zerrenda](#).

Aurkezpenerako kontuan izan ditzaketen puntuak:



Guztien lana bateratzeko, emakume bertsolari guztien argazkiak inprimatu, eta collageak egin daitezke, izenak eta bertso batzuk ere ipiniz. Collage horiek ikastetxeko hormetan zintzilikatu daitezke.


Collagea



[Iturria](#)

- *"Zu zeu elkarrizketatzaile"*. Ikasleek elkarrizketak egitea da proposatzen dena: herriko edo bailarako emakume aitzindariak elkarrizketatzea; bertsolariak, musikariak, margolariak, antzezleak, idazleak, kirolariak... izan daitezke.  
2-3 laguneko taldetxoetan egin daitezke. Bideoz grabatu, eta ondoren hainbat modutara aurkez daitezke, ikastetxean zein herrian zabaltzeko.

Jarraitu daitezkeen pausoak:



Esan bezala, elkarrizketa bideoan grabatzea proposatzen dugu (ikus [jarraibide orokorrak](#)). Ondoren, hainbat lanketa (zailtasun maila desberdinekoak) egin daitezke grabazio horrekin:

**1-**Aurkezpen bat egin gelan, jasotakoa erakusteko. Elkarrizketaren nondik norakoak azaldu, elkarrizketatuak kontatutako gauza interesgarri batzuk aipatu eta grabazioaren zatitxo bat erakutsi.

**2-**Bideo-erreportaje labur bat prestatu grabatutako irudiekin (horretarako, editatzeko programaren bat erabiltzen erakutsi eta adibideak eman). Gelakideei erakutsi, azalpenak eman. Sarean ere zabaldu daiteke.

**3-**Elkarrizketa idatziz jarri, egunkari digital edo blog baterako (titulua, azpitulua, sarrera, galde-erantzunak, argazkia, azgazki-oina...) Bi aukera: elkarrizketa (galdera-erantzunak sartuta) eta erreportajea (elkarrizketan jasotako esaldiak zeharka sartzen dira). Adibiderako, ikus Jakintza ikastolako ikasleek egiten dutena: [Famatuei egindako elkarrizketak](#). Kasu honetan ere egindako lana gelan aurkeztea proposatzen dugu.

Ondo legoke grabazioak [Ahotsak.eus](http://Ahotsak.eus)-era bideratzea, ahozko ondarearen artxibora (adibiderako, ikus Donostiako [San Ignazio ikastetxeko ikasleen proiektua](#)).



*Irudian, Donostiako San Ignazio ikastetxeko bi ikasle, elkarrizketatuarekin. Gorka Lekarozek utzitako argazkia.*

- *"Sormena lagun"*. Bertsolari bihurtu eta bertsoak asmatzeko garaia da. Istorioak kontatuko ditugu, bertsoan, hiru bertsoz osatutakoak. Bertso-kateak egingo ditugu horretarako. Gaiak ikasleek erabakiko dituzte. Ahal dela, umorea erabiltzea komeniko litzateke.

### 1. bertsoa

#### Lehenengo bertsoa

Ikasle batzuk lanean dauden bitartean besteak ezer egin gabe egon ez daitezen, gela laupabost talde handitan banatu daitezke: 4 ikasle taldeko (talde batzuetan 5 ere izan daitezke, zenbakiek koadratzeko; ikasle kopuruaren arabera, sei-zazpi talde ere izan daitezke). Lehenengo bertsoa taldean asmatuko dute. Talde bakoitzak sortu duen bertsoa idatziz ipini eta kantatu egingo du.

## 2. bertsoa

### Bigarren bertsoa

Talde bakoitzak bi bertso aukeratuko ditu. Hori bai, ezingo dute beraiek sortutako bertsoa aukeratu, beste taldeek egindakoak baizik (guztiek bertso berak nahi badituzte, zozketa egin daiteke; adibidez, bertsoak tolestu eta itsu-itsuan hartzea). Gai bakoitzarekin bertso-kate bat sortuko da. Talde bakoitzeko bikote bakoitzak (bi bikote daude taldeko; talderen batean hirukoteren bat ere egon daiteke) gai bat hartuko du eta segida emango dio: bigarren bertsoa sortuko du.

## 3. bertsoa

### Hirugarren bertsoa

Hirugarren bertsoa osatzeko, taldeetako bikoteek trukea egingo dute: bigarren bertsoa sortu duen bikoteak ezingo du istorio horri segida emango dion hirugarren bertsoa sortu. Beste taldearen gaiari emango dio segida. Hala, istorio-ipuin mordoxka sortuko dira guztira.

Doinu eta neurri bakarra aukeratuko dute guztien artean. Bertsoak sortzeko [arbel digitala](#) erabil dezakete (izena eman behar da) eta, doinua aukeratzeko, berriz, [doinutegia](#).


Behin bertso guztiak prestatu ostean, gela osoaren aurrean aurkeztuko dute egindako lana, kantatuz, rapean arituz, antzeztuz edo ozenki irakurriz. Bikote bakoitzak erabaki dezala bere bertso-sorta (hiru bertsoetako bakarra izango da beraiek sortua) nola aurkeztu nahi duen.

Ondoren, nola sentitu diren galdetuko zaie, ea eroso aritu diren ala ez jakiteko.

## 5. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpenak.

7. *Gaia*: **Emakumea eta umorea** Genero-berdintasuna

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/emakumea-eta-umorea>



**Bideoa ikusi aurretik**

1. Aurrezagutzak aktibatzeke, gisa honetako galderak egin ditzakegu, bideoa umoreari buruzkoa dela aipatuta:

- Zuentzat zaila ala erraza da umorea egitea?
- Esan ezagutzen dituzuen umoristen izenak (edo aktore umoretsuen izenak). Zerrenda bat osatuko dugu. Zenbat dira emakumeak?
- Umoreak ba al du generorik? Ba al dago umore maskulinorik eta umore femeninorik? Arrazoitu.
- Neskak ala mutilak, nortzuk dira umoretsuagoak? Ba al dago bereizketarik?
- Mutilek neskek baino grazia gehiago egiten dutela esan izan da, umorerako joera berezi bat dutela. Egia al da? Nondik dator uste hori?



- Erraztasun berarekin erabiltzen al duzue umorea eremu pribatuan (senide eta lagunekin) eta eremu publikoan (talde handiagoan)? Lotsarik sentitzen al duzue zuei begira daudenean?
- Umore mamitsua eta umore erraza daude. Eman bien adibideak. Berdin baloratuta al daude?

### Bideoa ikusi bitartean

1. Bideoa ikusi aurretik zituzten aurrezagutzak eta bideoa ikusi bitartekoak alderatu.
2. Bideoan zehar ulertzen ez dena azaldu, eta behar beste aldiz ikusi. Hiztegi aldetik dituzten zalantzak argitu. Ezagutzen ez dituzten kontzeptuak edo erreferentziak apuntatu.

Bideoa behar adina aldiz ikusiko dute, informazioari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.

### Bideoa ikusi ondoren

1. Ziurtatu ulertu dutela. Argitu zalantzak.
2. Partekatu bideoari buruzko hausnarketak eta iritziak:

- Ezagutzen al zenituzten bideoan agertu diren pertsonak? Nondik?
- Bea Egizabalek dio umoreak sufrimendua arintzeko balio duela. Ados al zaudete?
- Egia al da neskek grazia egiteko joera gutxiago dutela eta mutilek gehiago? Identifikatuta sentitzen al zarete horrekin?
- Hitz egiten al duzue gai eskatologikoei buruz?

- Desberdin neurtzen al da txiste lizuna emakumeak egiten baldin bada? Neskek "finagoak" izan behar al dute ala hori lehenaldiko kontua da?
- Emakumeak ezkutuan, plaza publikotik aparte, egon direla diote bideoan. Nola ikusten duzue zuek?
- "Tuntun samarra da", "amargatu bat da"... entzun al duzue halako esaldirik?
- Entzun al duzue aluaren edo klitoriaren gaineko txisterik? Hala bada, kontatu!



[Iturria](#)

3. Bideoan agertzen diren aktoreak eta bertsolariak nor diren aipatu daiteke; antzerki-mundukoak, Bea Egizabal eta Agurtzane Intxaurrea; bertso mundukoak: Gorka eta Miren Artetxe, Uxue Alberdi eta Estitxu Eizagirre.


Miren Artetxe eta Eli Pagola bertsolariek idatzitako [Ño](#) komiki-liburua irakurri daiteke, eta ondoren komentatu.

4. **Azken ekoizpena:** Hainbat ekoizpen garatu daitezke, talde txikitan. Hiru adibide eskaintzen dira hemen. Ikasleek bat aukeratu dezakete edo ordezeko bat proposatu, edo talde bakoitzak proposamenetako bat egin dezake.
- *"Besteen azalean"*. Puta, Ama Birjina eta sorgina omen dira emakumeen hiru estereotipo, pertsonaiak sortzeko orduan. Horrekin ariketa bat egin daiteke, talde txikitan banatuta. Bertsoan egitea eta umorea erabiltzen saiatzea proposatzen dugu.

*Egoera: Gizon bat  
neska gaztearekin  
ligatzen saiatuko da*


Egin beharrekoa: gizonaren eta neskaren arteko elkarrizketa asmatu, bina bertso. Talde bakoitzak guztira lau bertso asmatuko ditu. Hori bai, neskaren jarrera ez da beti bera izango: puta, Ama Birjina ala sorgina izan daiteke. Talde bakoitzak bat aukeratuko du (talde asko baldin badira, pertsonaia errepikatu egin daiteke: adibidez, hiru puta, hiru Ama Birjina eta hiru sorgin).

- **Ama Birjina:** *sexua tabua da berarentzat*
- **Puta:** *sexua jolasa da berarentzat*
- **Sorgina:** *espero denaren kontrakoa egiten du*



Bertsoen neurria eta doinua guztien artean erabaki dezakete. Adibidez, zortziko txikia. 20-30 minutu izango dituzte bertsoak prestatzeko. Ondoren, ikaskideen aurrean kantatuko dituzte bertsoak.

Bertso guztiak entzun ostean, ikasleak bertsoetan agertu den edukiari buruzko hausnarketa egitera gonbidatu ditzakegu, genero-ikuspegitik:


- 
- Errepikatu al da klixerik edo estereotiporik?
  - Ikusten al duzue zantzu sexistarik edo matxistarik sortu dituzuen bertsoetan?
  - Zein da emakumeari buruz agertu den irudia?
  - Ateratzen al duzue ondorioren bat?

- *"Historia egiten"*. Komedian ondo moldatzen diren Euskal Herriko emakumezko aktore batzuen lanak ezagutuko ditugu. Horretarako, binaka edo talde txikitara egin dezakete lana.

Lehenbizi, zerrenda bat osatuko dugu denon artean eta, ondoren, taldetxo bakoitzak izen bat aukeratu beharko du (guztiek desberdina), pertsona horren inguruan ikertzeko (ez da aski Wikipedian jartzen duenarekin). Hona hemen zerrenda osatzeko izen batzuk (baina badira umoregintzan trebeak diren gehiago ere):



Helburua ahozko aurkezpen txiki bat egitea izango da. Hauek izan daitezke aurkezpeneko puntuak:



- *"Jolastek"*. Txiste maratokia egingo dugu, 3-4 laguneko taldeetan banatuta. Taldeak mistoak izango dira. Talde guztiek 30 minutu izango dituzte txisteak prestatzeko eta, ondoren, kontatu egingo dituzte. Ikasle bakoitzak bina txiste kontatuko ditu. Kontuz txiste iraingarri, matxista, xenofobo eta arrazistekin: ez dira ontzat emango.

Bi saio egingo ditugu. Saio bakoitzean gelaren erdia publikoa izango da, eta baita epaimahaia ere: txiste kontalari onenak sarituko ditu (horretarako, kontuan izango dutena: txistea ona den ala ez eta graziarekin kontatu den ala ez). Talde bakoitzaren txisteen ostean, 1etik 10erako puntuak emango dituzte publikoko kideek (beste taldeetako bakoitzetik ordezkari batek, taldean erabakita). Hala, puntu gehien lortzen dituen izango da talde irabazlea saio bakoitzean. Saria barreak eta txaloak izango dira.



Iturria: [CANVAS](#)

Jolasaren ondoren, nola sentitu diren galdetuko diegu ikasleei: eroso ala deseroso, lotsatuta ala lasai, erridikulu sentazioa izan duten ala ez, ea protagonismoa izatearena nola daramaten... Kontuan izango dugu bideoan esaten dutena ere: neskei gehiago kostatzen zaiela publikoan hitz egitea. Hala al da?

#### **5. Ekoizpena partekatzea. Ahozko aurkezpena.**

## ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Proposamen pedagogiko gehienak gelan landuko dira, espazio itxietarako unean uneko osasun-neurri guztiak errespetatuta. Espazioa antolatzeke orduan gertuko giroa sortzen saiatuko gara. Talde-lana sustatuko dugu, eta ikasleen autonomiari garrantzia emango diogu. Espazioa talde-lanerako era egokian antolatuko da betiere (talde txikiak edo handiak diren, horren arabera). Ikasle guztiek parte hartzeke aukera bera dutela eta espazioaren antolaketa ez dela horretarako oztopo ziurtatuko da. Espazioari dagokionez, aintzat hartuko da irakaslearen eta ikasleen arteko harremana ere, irakaslea fisikoki ikasleen gainetik ez agertzeke.

Lanketak hala eskatzen duenean (ikasleek euren esperientzia pertsonalak kontatzeko, adibidez), gela modu berezian girotu dezakegu: mahai eta aulkiak albo batera eraman, irakaslea zein ikasleak lurtean eseri, argiztapena zaindu (argi motela erabili)... Kontuan izan behar dugu transmisioa dela helburua, eta horretarako garrantzitsua dela giro aproposa sortzea. Testuinguru egokia sortzea, alegia. Ikasleak ez dira epaituak sentitu behar, hitz egiteke eta entzuteke gogoia izan behar dute. Eroso sentitu behar dute, etxean bezala.



Ikasleek euren kabuz informazioa lortzeke edo ekoizpenak prestatzeke, egokia izan daiteke IKTrako baliabideak dituen gela edo liburutegia erabiltzea. Bestalde, ikastetxetik kanpo informazioa biltzea ere bultzatuko da, gertuko errealitatea ezagutzeko: etxean, kalean... Ahozkotasunean oinarritutako proiektua den heinean, garrantzia emango zaio inguru hurbilean testigantzak biltzeari.

Komeni denean, areto nagusia, liburutegia edo kanpoko eremuren bat ere erabil daiteke lanketa batzuk egiteke (mugimendua eskatzen dutenak, antzezlanak edo jolas girokoak, leku zabalagoa izateke).

## **Taldekatzeak**

Ikasleek binaka edo talde txikitan lan egitea bultzatuko da bakarkako lana baino gehiago. Taldeak sortzeko garaian, ikasleen gustuak eta gaitasunak kontuan hartuko dira, eroso lan egin dezaten. Ahal dela, ikasleek erabakiko dute noekin lan egin nahi duten. Ikasleren bat edo batzuk baztertuta geratzen direla ikusiz gero, taldekatzea beste era batera egingo da. Baztertuta sentitzen diren ikasleei entzungo zaie, horretarako.

Talde bakoitzak bere espazioa izatea ahalbidetuko da, posible den heinean: elkar entzuteko eta gustura lan egiteko aukera izan dezaten. Arreta berezia jarriko zaio taldeen funtzionatzeko moduari, ikasleak bikoteka eta taldean nola moldatzen diren zainduko da, eta ebaluazio-irizpideetan ere aintzat hartuko da. Komenigarria da ikasleak berak nola sentitu den azaltzea, egoki iritzitako aldaketak egin ahal izateko.

Taldeen funtzionamenduan ikasle guztien parte-hartzea orekatua izatea eta lidergorik ez sortzea bilatuko da. Ahal dela, taldeko kide guztiek protagonismo bera izango dute. Horrek ez du esan nahi guztiek gauza bera egingo dutenik. Bakoitzaren gaitasunak eta gustuak errespetatuko eta baloratuko dira. Hori bai, ahozkoa lantzea denez ikasmaterial honen helburuetako bat, taldekide guztiek ahozko jarduna erabiltzea bultzatuko da, modu formalean zein informalean.

Talde-lana bultzatuko da: lanak guztien artean egitea. Emaidza bezainbat edo gehiago baloratuko da talde-lanerako prestutasuna: ikasleek elkar entzutea, iritziak partekatzea eta erabakiak guztien artean hartzea.



## DENBORALIZAZIOA

---

Irakasleak erabakiko du zenbat denbora eskaini lanketari. Izan ere, irakasleak erabakiko du zein jarduera egingo dituen ikasleekin, eta zenbat denbora beharko duen horretarako.

Irakasleak jarduera guztiak bere egitea erabakitzen baldin badu, orduan proposamen pedagogikoak Sekuentzia Didaktiko bihur daitezke. Fitxa Pedagogiko guztiak ez dira berdinak, eta lanketarako denbora ere diferentea izan daiteke, baina jarduera guztiak aurrera eramanez gero (azken ekoizpen bat aukeratuta), lanketa 4-6 ordukoa izango dela aurreikusten dugu:

1. *saioa*. Bideoa ikusi aurretik egingo diren jarduerak. Bideoa ikusi.
2. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo jarduera batzuk (1. saioan ere hasi gaitzke jarduerekin).
3. *saioa*. Bideoa ikusi ondorengo beste jarduera batzuk.
4. *saioa*. Ikerketa, informazio-bilketa edo -lanketa, ekoizpena gauzatzeko (kasuan-kasuan, saio hau ikastetxetik kanpo egin daiteke).
5. *saioa*. Ekoizpena partekatu eta grabatu.
6. *saioa*. Grabazioak ikusi eta ebaluazioa egin.

### Baliabide teknikoak

- IKTak. Eskola 2.0 egitasmoko baliabideak eskura izango ditugu: arbel digitala gela osorako eta ordenagailu eramangarriak ikasleentzat.
- Bideoak pantaila handian ikusiko dira. Pantaila, ordenagailua, Internetarako konexioa, proiektorea eta bozgorailuak beharko dira. Arazo teknikoak izanez gero, posible izango da ikasleek euren ordenagailu eramangarrietan ikustea bideoa. Aurikularrak beharko dituzte.
- Informazioa bilatzeko Internet erabiliko dugu. Ezinbestekoa da konexioa izatea.

- Informazioa jasotzeko eta materiala ekoizteko tabletak, bideokamerak, ordenagailuak etab. erabiliko dira.
- Gaiak aurkezteko, dokumentuak sortzeko eta ekoizpenetarako sarean aurkitu ditzakegun aplikazio libreak erabiliko ditugu. Zenbaitetan bideoak eta ekoizpenak partekatzeko, proiektorea, bozgorailuak eta ordenagailua beharko dira.

## MATERIALAREN EGILEAK

---

Ikasmaterial hau Badihardugu Euskara Elkartek sortu du, [www.ahotsak.eus](http://www.ahotsak.eus) eta proiektuak oinarri hartuta.

- **IDOIA ETXEBERRIA ELORZA.** Edukien diseinuaz eta garapenez arduratuko da. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Donostian, Kazetaritza Leioan eta Itzulpengintza Masterra Gasteizen. 4. Hizkuntza Eskakizuna dauka. 2009tik dabil Badihardugun lanean. Elkartek Hezkuntza arloan dituen proiektuen eta Ikasgelan webgunearen arduraduna da, eta *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du (EIMA 2.0, orain EIMA Digitala) aurreko urteetan ere. Kazetari eta iritzi-artikulugile lanetan ere aritua da (*Euskaldunon Egunkaria, Berria, Goiena*).
- **ITZIAR SAPSOOTHAM AREVALO.** Proposamen pedagogikoak sortu eta garatzen jardun du. Geografian lizentziaduna da eta liburutegi publikoetan lanean aritu da eta,aldi berean, hainbat ikerketa historiko-geografiko ere uztartu ditu. Ondarean aditua, 2020tik da Badihardugu Elkarteko langilea eta orduz geroztik dabil, besteak beste, Euskal Herriko Ahotsak (Ahotsak.eus) proiektuan lanean.
- **AINTZANE AGIRREBEÑA UBERA.** Proiektu honetan aholkulari pedagogikoaren ardura izango du. Edukien transkripzioekin eta proposamen pedagogikoekin lagunduko du. Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen eta irakaskuntzarako gaitasun agiriaren jabe da. Badihardugu elkarteko koordinatzailea da eta Euskal Herriko Ahotsak proiektuaren sortzaileetako bat. Hainbat herritako hizkera jaso eta aztertu du, tartean Eibar, Beasain, Zarautz eta Zumaia. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **HAIZEA ODRIA ESNAL.** Bideoen edizioaz arduratuko da. Arte Ederretan lizentziaduna, gehienbat ikus-entzunezkoen munduan aritu da. Ekoiztetxe eta herri telebistetan bideo-editore, diseinatzaile eta kamerari gisa ibili da. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko bi ediziotan ere parte hartu du, bertako telebista eta web ofizialerako bideoak sortzen. Ahotsak.eus proiektuan bideo-editore eta elkarrizketatzaile dihardu 2009tik. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala prestatzen jardun du aurreko urteetan ere.
- **IZASKUN GASTON BALERDI.** Beharrezko izapide administratiboak egiteaz gainera, gida didaktikoaren diseinu eta maketazioaz arduratzen da. Arte Ederretan Lizentziatua da. *Herritarren ahotsak: transmisioa ikasgelan* ikasmateriala (EIMA 2.0) maketatzen eta diseinatzen jardun du aurreko urteetan ere.

- **JOSUNE ZABALA ALBERDI.** Aholkularitza eskatuko diogu, ahozkotasanari eta ahozko genero-testuei dagokienean bereziki. Euskal Filologian doktore da. EHUn eta HUHEZIn irakasle, ikertzaile, koordinatzaile eta aholkulari moduan ibilia, eta baita Soziolinguistika Klusterreko bulego teknikoan ere. Ahozko testu-generoetan aditua. Hezkuntzan ahozkotasuna lantzeko, ikasmateriala sortzen eta irakasleak trebatzen jardun du.

## BIBLIOGRAFIA

---

- AGIRRE, Lorea (2010). *Zapia eta txapela Emakume bertsolariak tradizioarekin negoziatzen eta eredu berria sortzen. Negoziazioak eta disonantziak: mututasunetik emulaziora, eta emulaziotik ahots propiora*. Arrasate: HUHEZI.
- ÁLVAREZ URIA, Amaia, UGALDE, Ana Isabel, LEKUE, Pablo, MARTÍNEZ, Judit (2016). *Emakume bertsolariak. Ahazturatik diskurtso propiora*. Gasteiz: Emakunde.
- AMONARRIZ, Kike (2002). "Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran" in *IX-Jardunaldi pedagogikoak. Euskararen erabilera*. Donostia, EHIE: 417-465
- AMONARRIZ, Kike (2012). "Txisteeek euskaraz ez dute graziarik" in *Campus*. 79: 39. Leioa: EHU. [https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus\\_79\\_def\\_web/39](https://issuu.com/upv-ehu/docs/campus_79_def_web/39)
- ARISTI, Pako. (1998). *Arantzazu Loidi: emakume exigente bat bertsolaritzan*. Bertsolari aldizkaria 30, 72-77.
- ASKOREN ARTEAN (2013). *Ikasleak hiztun. 2011ko Arrue proiektua*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz
- BARQUIN, Amelia (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.
- BEGIRISTAIN, Edurne. (2011). *El bertsolarismo, en el camino de la igualdad*. Gasteiz: Emakunde
- BELTRAN, Elena, MAQUIEIRA, Virginia (2001). *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*. Madril: Alianza Editorial.
- BRONCKART, Jean-Paul (2004) *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo socio-discursivo*. Madril: Fundación infancia y aprendizaje.
- COGAM (2013). *Homofobia en las aulas*  
<https://docs.google.com/viewer?a=v&pid=sites&srcid=b3JpYXBhdC5vcmd8aGV6a2lkZXR6YS1wbGFuYXxneDozZTM5NzZmNjdmNWM3ZjY5>
- De PIETRO, Jean-François, DOLZ, Joaquim (1997). "L'oral comme texte: comment construire un objet enseignable?" in *Education et recherches*. 1/1997: 335-339.

Friburgo: Editions Universitaires Fribourg Suisse. <https://www.e-periodica.ch/digbib/view?pid=szb-001:1997:19::457#4>

- DIEZ MINTEGUI, Carmen (2003). *Tradiciones culturales y legitimización del poder masculino*. Bilbo: EHU.  
[http://www.ugr.es/~pwlac/G19\\_15Carmen\\_Diez\\_Mintegui.html](http://www.ugr.es/~pwlac/G19_15Carmen_Diez_Mintegui.html)
- *NBEko Batzar Orokorra* (2015). [2030 Agenda: Garapen Iraunkorrerako Helburuak gure mundua eraldatzeko](#). Donostiako Udala
- DOLZ, Joaquim, SCHNEUWLY, Bernard (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris: ESF.
- DOLZ, Joaquim, NOVERRAZ, Michèle, SCHNEUWLY, Bernard. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques* (vol. II, 3<sup>e</sup>/4<sup>e</sup>). Brusela: De Boeck.
- DOLZ, Joaquim, VILA, Montserrat (1997). "L'oral formal" in *Articles* 12. Bartzelona: Grao.
- ECHEVERRIA, Begoña (2001). "Privileging masculinity in the social construction of Basque identity" in *Nations and Nationalism*, 7(3). 339-363. Los Angeles: University of California. [https://38c3c988-8b73-491f-a929-fcca7c086139.filesusr.com/ugd/9bbd41\\_0fac911a1c384282be45a784b2530f0f.pdf](https://38c3c988-8b73-491f-a929-fcca7c086139.filesusr.com/ugd/9bbd41_0fac911a1c384282be45a784b2530f0f.pdf)
- EIZMENDI, Iñaki (2015). "Eragileen sarea osatzen. Haur eta gazteen hizkuntza-ohituretan eragitera bideratutako eredu baten azalpena" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 94: 71-91. Andoain: Sei.
- ELLAKURIAGA, Izaskun. (1992). *Bizkaiko emakume bertsolariak*. Bertsolari aldizkaria 8, 41-64
- ERRIONDO L., Bilbao B., GARAGORRI X., IDIAZABAL I., IZTUETA P (2003). *Euskal Dimentsioa Curriculumean. Oinarrizko irizpideak, norabideak eta lorbideak*. *Euskal Eskola Publikoa Gaur bihar*. Gasteiz
- ESNAOLA, Imanol (2000). "Euskara nerabezaroan. Gazteen hizkera eta motibazioa" in *HIK-HASI*. 49. Donostia: HIK HASI.  
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20000601/euskara-nerabezaroan-gazteen-hizkera-eta-motibazioa>

- ESNAOLA, Imanol. (2000). "Gazteak eta erregistro kolokiala" in *HIK-HASI*, 49. Donostia: HIK HASI. <http://www.hikhasi.eus/artikulu/542>
- EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004). *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2007). *Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza Curriculumean*. Ale gehigarria. 218. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (2023). *77/2023 DEKRETUA, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzua.
- EUSKO JAURLARITZA (1993). *Euskal Autonomi Elkarte emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua*. Gasteiz: Emakunde. [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_guias2/eu\\_emakunde/adjuntos/guia.02.recursos.basicos.mujeres.eus.pdf.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.02.recursos.basicos.mujeres.eus.pdf.pdf)
- FOUASSIER, Maite (2017). *Aniztasuna ikasgeletan: hezkuntzaren alorreko ahotsak*. In J. A. Oleaga. (Arg.), *Haur eta gazteen aniztasuna EAEn. (Oker izendatutako bigarren belaunaldiak (143-268 orr.))*. Bilbo, EHU
- GARCIA-AZKOAGA, I.M. (2015). *Ahozko euskararen erabilera eta eskola. Zein ahozkotasan irakatsi?* Euskonews. Eusko Ikaskuntza.
- GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2015). "Ahozko euskara, ikerketarako unibertso bat" in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*. 96: 011-028. Andoain: Sei. [https://www.academia.edu/20802637/Ahozko\\_euskara\\_ikerketarako\\_unibertso\\_bat](https://www.academia.edu/20802637/Ahozko_euskara_ikerketarako_unibertso_bat)
- GEHITU (2008). [Nerabeen jarrerak aniztasun afektibo-sexualaren aurrean. 2007-2008 ikasturtea.](http://www.euskalnet.net/gehitumagazine/IKERKETA20072008.pdf) <http://www.euskalnet.net/gehitumagazine/IKERKETA20072008.pdf>
- HERNANDEZ, Jone Miren. (2007). *Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea*. KOBIE, Serie Antropologia cultural, 12, 61-70.
- HERNANDEZ, Jone Miren. (2014). *Emakume bertsolariak: bertsoetik bertsoa, hanka puntetan*. In Gema. Lasarte eta Amaia. Alvarez-Uria (ed.). *Gorputza eta generoa: Teoria didaktika eta esperientziak*. (orr. 49-66). Donostia: UEU.

- HEZIBERRI 2020: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-hezi2020/eu/>
- IBARGUREN, Leire. (2010). *Emakumeak, oholtza eta umorea* (Master Bukaerako lana)
- IBARRA, Orreaga (2011). *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: N.U.P.
- IDIAZABAL, Itziar. (1990), *Hizkuntzaren psicopedagogía. Testu motak*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- IDIAZABAL, Itziar, GARCIA-AZKOAGA, Ines M. (2007) *Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza*. Bilbo: EHU. <http://testubiltegia.ehu.es/Ahozko-Hizkuntza>
- KAGAN, Spencer (1999). *Cooperative Learning. San Clemente: Resources for Teachers*. California: Kagan Publishing.
- LABAKA, Ane. (2014). *Emakume bertsolariak. Historiak ikusezin bilakatuak ikusaraziz* (Master bukaerako lana). Donostia: UPV/EHU
- LARRAÑAGA, Carmen. (2000). *Mujeres bertsolaris en la historia*. Hika, 98, 44-45
- LEON, Irati; TSVINTARNAI, Inna; MARTINEZ, Judit; GAMITO, Raket (2019). *Genero ikuspegitik zer nolako lanketa egiten da hezkuntzan? Binarismoa eta feminismoa aztergai*. EHU
- LLEDO, Eulalia (2008). *Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak*. Gasteiz: Emakunde.
- MEDGYES, P. (2012). *Laughing Matters: Humour in the Language Classroom*. Cambridge: Handbooks for Language Teachers.
- Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa (2015). Aniztasuna besarkatzea: jazarpen homofobiko eta transfobikorik gabeko hezkuntzarako proposamenak. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu\\_materiales/eu\\_def/Abrazar-la-diversidad.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/berdindu_materiales/eu_def/Abrazar-la-diversidad.pdf)
- RAWLS, John, GABIKAGOJEASKOA, Alberto (2008). Justiziaren teoria bat. Pentsamenduaren klasikoak. Bilbo: Klasikoak. <http://eimakatalogoa.eus/vufind/Record/16172>
- RINCON, Ana (1997). *Ikastetxearen hezkidetzaren ereduak egiteko gida*. I tomoa. Gasteiz: Emakunde.



[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_guias2/eu\\_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf)  
[.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf)

- RINCON, Ana (1997). Ikastetxearen hezkuntza eta curriculum proiektua egiteko baliabideak. II tomoa. Gasteiz: Emakunde.  
[http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_guias2/eu\\_emakunde/adjuntos/guia.04.02.instrumentos.elaboracion.proyecto.educativo.eus.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_guias2/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.02.instrumentos.elaboracion.proyecto.educativo.eus.pdf)
- RINCÓN, Ana (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Gasteiz: Emakunde
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA (2013). Arrue Proiektua. Ebaluazio diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabilerari buruzko datuak (LH 4 eta DBH 2).  
<http://www.soziolinguistika.org/es/arrue/2011txostena>
- ZALBIDE, Mikel (2002). *Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?* Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Donostia: Ikastolen Elkarte.



“Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren Onespena du”

2024/10/15